



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 24a

80. ZK.

A U R K I B I D E A

I S A I L A:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2. or.).

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2008ko uztailaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa igorri du Nafarroako Parlamentura, honek bere iritzia eman dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa izapidetzeko onartzea.

2. Plan horretaz irizpena emateko ahalmena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa

AURKIBIDEA

I. Sarrera (4. or.).

II. Abiapuntuko egoeraren azterketa (5. or.).

II.1. Populazioa. Populazioaren bilakaera eta adierazle nagusiak (5. or.).

II.2. Populazioaren hazkundera, gizarte zerbitzuen barrutien arabera (7. or.).

II.3. Etxe mota (8. or.).

II.4. Nafarroan mendekotasuna duten biztanleen proiektzioa (12. or.).

II.5. Gizarte zerbitzuen antolaketa, lurraldekoa eta funtzionala (14. or.).

Lurralde antolaketa: oinarrizko eskualdeak eta barrutiak (14. or.).

Gizarte zerbitzuen antolaketa funtzionala: Oinarrizko Arreta eta Arreta Espezializatu (16. or.).

II.6. Gizarte zerbitzuen erantzuna (16. or.).

Oinarrizko arretako gizarte zerbitzuen erantzuna (17. or.).

Gizarte zerbitzu espezializatuen erantzuna (21. or.).

II.7. Gizarte Zerbitzuen sistema publikoaren eredu berria: Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa (46. or.).

III. Balizko eskaeraren azterketa (47. or.).

III.1. Balizko eskaera (47. or.).

Mendekotasuna (47. or.).

Adineko pertsonak (48. or.).

Mendekotasuna duten pertsonak (48. or.).

Buru-nahaste larria (49. or.).

Gizarte Bazterketa (50. or.).

Adingabeak (51. or.).

Genero indarkeriaren biktimak (51. or.).

IV. Eskaera errealaren azterketa (52. or.).

IV.1. Mendekotasuna duten adineko pertsonak (52. or.).

IV.2. Ezgaitasuna (54. or.).

Adimeneko ezgaitasuna eta jokabidearen nahastea (55. or.).

IV.3. Buru-nahaste larria (56. or.).

IV.4. Gizarte bazterketa (57. or.).

IV.5. Adingabeak (57. or.).

IV.6. Genero indarkeriaren biktimak (57. or.).

V. Diagnostiko estrategikoa (58. or.).

- V.1. Indarrak/aukerak, mehatxuak/ahultasunak (58. or.).
AMIA diagnostikoa (58. or.).
- VI.** Nafarroako Gizarte zerbitzuen Plan estrategikoa 2008-2012 (60. or.).
- VI.1. Ikuspegia, Eginkizuna, Printzipioak eta Helburuak (60. or.).
Ikuspegia: (60. or.).
- Eginkizuna: (60. or.).
Printzipioak: (60. or.).
Helburu orokorrak: (60. or.).
Ildo Estrategikoak: (61. or.).
- VI.2. Jarduketak eta ebaluazio adierazleak ezartzeko kronograma (72. or.).
- Eranskina: Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren lurralde antolaketa (87. or.).

I. SARRERA

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Lege aitzindaria, Espainian, estreinakoz, pertsonak gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea dutela ezartzen duena, eta, eskubide hori garatzeko, ekainaren 17an emaniko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte zerbitzu orokorren zorua ezarri zuena, onetsi ondoren, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2008-2012) lehen-dabiziko urratsa da Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuak kudeatzeko modu berri bate-rantz daraman bidean; kudeaketa berri horren bidez, eraginkortasunez aurre egingen diegu aipatutako arauak gizarte zerbitzuen sistema publikora ekarri dituzten aldaketen erronkei, pertsonen beharrei erantzun egokia emanez eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetuz.

Hortaz, Plan Estrategiko honen asmoa da, batetik, hurrengo urteetako gizarte zerbitzuen arloko politiken ildoak ezartzea, eta bestetik sektorea planifikatzeko esparrua izatea.

Plana egin aurretik Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egungo egoeraren ezagutgarriak aztertu ditugu, abiapuntua ongi ezagutzeko eta, hartara, ezarriko diren helburuak nafarren beharrek bat etor daitezela eta, aldi berean, errealistak izan daitezela.

Plana egiteko partaidetzara bideratutako prozesu bat prestatu da, bost fase hauekin:

- I. Agirien prestaketa.
- II. Parte-hartzea
- III. Ekarpak bildu eta aztertzea
- IV. Agirien zabalkundea
- V. Tramitazioa eta onespina

Plan hau hiru kapitulu nagusitan egituraturik dago: lehenbizikoan abiapuntuko egoeraren azterketa jaso da, bigarrenean diagnostiko estrategikoa eta hirugarrenean plan estrategikoa bera.

Abiapuntuko egoeraren azterketak hiru norabide izan ditu: batetik, Nafarroako biztanleriaren ezaugarriak aztertzea, eta bestetik, egungo sistemak gizarte beharretarako eskaintzen duen erantzuna eta, azkenik, sistema garatzen den inguru-nea.

AMIA diagnostikoan, berriz, partaide guztiek, zein bere esperientzian eta ikuspegiaren oinarrituz, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen egungo eta etorkizuneko egoeraz egindako balorazioak biltzen dira.

Plan Estrategikoari dagokionez, honako hauen berrikuspen partziala egiten du: sistemaren ikuspegiari buruzko alderdiak, kudeaketaz arduratzen den antolakundearen zeregina eta arreta sozialaren arloko lanean gidari izan behar duten printzipioak. Era berean, plan berri hau aplikatuz lortu nahi diren helburu orokorrak ezartzen ditu.

Helburu horiek lortzeko, ildo estrategiko hauek diseinatu dira:

1. ildo estrategikoa. Arau garapena.
2. ildo estrategikoa. Lehenasunezko arreta beharrak.
3. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen banaketa lurraldean eta eskualdeak.
4. ildo estrategikoa. Plangintza, kontrola eta ikuskapena.
5. ildo estrategikoa. Antolaketa eta kudeaketa.
6. ildo estrategikoa. Prestakuntza eta ikerketa.
7. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen kalitatea.

Ildo estrategiko horiek garatu eta zehazteko zerbait neurri eta jarduketak ezarri dira.

Amaitzeko, eta plan estrategiko hau egiazko ekintza plana izan dadin, informazio hau ere sartuta dago bertan: kronograma, neurri bakoitza gauzatzeak dakartzan jarduketak ezartzeko erritmoa zehazten duena; ebaluaziorako adierazleak; neurriak bultzatzeaz arduratuko direnak; horiek gauzatzeko partaide direnak; eta neurriek kostu ekonomikoa dakarten ala ez, hala denean planak erantsirik duen memoria ekonomikoa islaturik ageri baita.

Horrela, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko hau (2008-2012) sistema berri bat erakitzeke tresna eraginkorra bilakatu behar da, nafarren ongizatea areagotzeko eta Ongizatearen Estatuaren laugarren zutabea sendotzeko, Gizarte Zerbitzuen Foru Legeak lehen-dabiziko harria jarri ondoren.

II. ABIAPUNTUKO EGOERAREN AZTERKETA

Abiapuntuko egoeraren azterketaren atalean hauek jaso dira:

Lehenbiziko atala, Nafarroako biztanleei buruzko datu adierazgarrienak biltzen dituena.

Bigarren atala, gizarte zerbitzuen inguruko gaur egungo antolaketari buruzkoa, lurraldekoa nahiz funtzionala.

Hirugarren atala, gizarte zerbitzuen egungo sistema publikoak arreta sektore guztiei ematen dien erantzuna zehazten duena: mendekotasuna, ezgaitasuna, adineko pertsonak, buru-eritasuna, gizarte bazterketa, adingabeak eta genero indarkeria.

Azken atalean eskaeraren azterketa egiten da, bai baliabideak jasotzeko itxaron zerrendari dagokionez bai gizarte zerbitzu orokorren zorroak indarra hartzeak ekar dezakeen balizko eskaerari dagokionez.

II.1. POPULAZIOA. POPULAZIOAREN BILAKAERA ETA ADIERAZLE NAGUSIAK

Plangintza estrategikoaren ezaugarri nagusiak kontuan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko biztanleak eta haien beharrak hartu dira abiapuntutzat, hau da, zein dira gizarte zerbitzuen hartzaileak eta nola aldatu dira azken urteotan? Horretarako, Nafarroako populazioaren honako adierazle soziodemografiko hauek erabiltzen ditugu: adina, generoa, jaiotza eta heriotza tasa, bizi itxaropena, hazkunde begetatiboa, etxe kopurua eta mota, migrazioen saldoa eta lurralde banaketa.

2007ko urtarrilaren 1ean, udal erroldaren arabera, Nafarroako biztanleak 605.876 ziren. Horrek esan nahi du 2003-2007 urteetan populazioaren igoera 27.666 biztanlekoa izan dela. **Urte arteko hazkunde tasa**, batez bestekoa, %1,24koa da, baina azken urtean %0,66koa, 4.002 biztanle gehiago izan baitira.

1. taula: Nafarroako populazio osoa, 2002-2007

	2003	2004	2005	2006	2007
Biztanleak, osotara	578.210	584.734	593.472	601.874	605.876

Iturria: NEI Oinarria. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Estatistika Institutuak populazioaren mugimendu naturalari buruz egindako txostenaren arabera, 2006ko jaiotzen kopurua 6.551 izan zen. Azken 25 urteotako balio altuena da, eta lotura zuzena du **jaiotza tasa gordinaren** hazkundearekin, batez

ere emakume etorkinen ugalkortasunak eraginda. Bestalde, epe horretan hildakoen kopuruak aldatketarik izan ez duenez, populazioaren hazkunde begetatibo absolutua oso positiboa da.

2. taula: Populazioaren hazkunde begetatiboa, 2002-2006 urteak

	2002	2003	2004	2005	2006
Jaiotza tasa gordina (%)	10,2	10,7	10,9	10,5	10,9
Jaiotza kop.	5.802	6.180	6.293	6.149	6.551
Heriotza tasa gordina (%)	8,7	9,1	8,6	8,9	8,4
Heriotza kop.	4.989	5.247	5.003	5.196	4.772
Hazkunde begetatiboa	813	933	1.290	953	1.779

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Populazioaren mugimendu naturala. 2006ko aurrerapena

Horrez gain, Nafarroako Foru Komunitatean goraka jarraitzen du bizi esperantzak (Espainiako altuena); egun, 82 urtekoa da batez bestekoa, 85,1 urtekoa emakumeentzat eta 79 urtekoa gizonentzat.

2002az geroztik, Foru Komunitateak **migrazio saldo** positiboa izan du; 2006an 9.033 pertsona izan ziren, haietatik %52 (4.701) gizonak, eta %48 (4.332) emakumezkoak.

3. taula: Migrazio saldoa Nafarroan, sexuaren eta urtearen arabera


	2002	2003	2004	2005	2006
Gizonezkoak	411	706	3.146	3.641	4.701
Emakumezkoak	455	588	3.111	3.296	4.332
Guztira	866	1.294	6.257	6.937	9.033

Iturria: NEI Oinarria. Migrazio saldoen bilakaera.

NEIaren arabera, 2006an, etorkinak, osotara, 37.479 izan ziren, eta horietatik 9.873 (%26,34) atzerriko herrialdeetatik etorritakoak eta 27.606 (%76,66) Estatuko gainerako tokietakoak. Emigratutakoak, berriz, 28.446 izan ziren, osotara. Horietatik 1.536 (%5,40) atzerriko herrialdeetara joan

ziren eta 26.910 (%94,60), berriz, Espainiako beste udalerrri batzuetara.

2007ko Nafarroako Foru Komunitateko populazioaren egitura, sexuaren eta adinen arabera, ondoko piramidean ikus daiteke.

1. grafikoa: Populazioaren piramidea 2007-01-01

Iturria: NEI. Populazio piramideak.

Ikus daitekeenez, adinen arabera egiturari dagokionez, pixkanaka zahartzen ari da populazioa, jaiotza tasa heriotza tasaren gainetik dago, berezko hazkundera murrizta da, helduen adin taldeak eta adinekoena handiak dira gazteen adin taldeekin alderaturik, eta 65 urtetik gorako kopurua ere nabarmena da. Piramidearen oinarrian populazio gazteagoaren hazkunderako joera ikusten da, azken urteotan jaiotza kopuruak izan

duen gehikuntzaren ondorioz. 0tik 4 urtera bitarteko adin tartea, 2003an, populazio osoaren %4,69koa izatetik 2007an %,20koa izatera pasatu da. Sexuen arabera ikus daiteke 60 urte arte gizonak direla gehiengoa eta adin horretatik aurrera, berriz, emakumeak.

Egindako populazio proiektzioek %4,4ko gehikuntza adierazten dute 2012rako, 2007rekin alderatuta.

4. taula: Nafarroako populazioaren proiektzioa NEIaren arabera

Urtea	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Populazioa	597.022	602.907	608.425	613.560	618.468	623.272

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Populazioaren proiektzioak Oinarria 2001eko errolda

NEIk proiektatzen duen populazio hazkunde horretatik abiatuta, eta kontuan hartuta Nafarroak 2007ko urtarrilaren 1ean 605.876 biztanle zituela, 2012rako 632.515 izanen direla aurreikusten da, hau da, 26.639 biztanle gehiago.

II.2. POPULAZIOAREN HAZKUNDEA, GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA

Nafarroako Foru Komunitatean azken hamar urteetan izandako hazkundera ez da homogeneoa izan lurralde osoan.

5. taula: Populazioa, osotara, 2003an eta 2007an, gizarte zerbitzuen barrutietan

	Populazioa		2003-2007 urteetako aldea	
	2003	2007	Populazioa	Ehunekoak (%)
Ipar-mendebaldea	52.690	53.600	910	1,73
Ipar-ekialdea	20.516	20.581	65	0,32
Lizarra	69.048	70.816	1.768	2,56
Tafalla	44.389	45.049	660	1,49
Tutera	88.201	91.838	3.637	4,12
Iruña eta Iruñerria	303.366	323.992	20.626	6,80
Nafarroa	578.210	605.876	27.666	4,78

Iturria: Udal erroldaren datuak, 2007ko urtarrilaren 1ean.

Taula honetan ikusten denez, gehikuntza handiena Iruñean eta Iruñerrian gertatu da (%6,80), eta ondoren Tuterako barrutian, %4,12koarekin.

Populazioaren egitura ere, adinen arabera, heterogeneoa da barrutietan, ondoko taulan ikusten denez.

6. taula: Populazioa adin-tartean eta barrutien arabera 2007an. Kopuru absolutuak eta ehunekoak.

Barrutiak	Guztira	<18		18-64		>65	
		Populazioa	%	Populazioa	Populazioa	Populazioa	%
Ipar-mendebaldea	53.600	8.543	15,94	34.536	64,43	10.521	19,71
Ipar-ekialdea	20.581	2.810	13,65	12.635	61,39	5.136	25,20
Lizarra	70.816	11.014	15,55	44.373	62,66	15.429	21,96
Tafalla	45.049	7.372	16,36	28.256	62,72	9.421	20,83
Tutera	91.838	15.541	16,92	59.126	64,38	17.171	18,67
Iruña eta Iruñerria	323.992	59.280	18,29	216.667	66,87	48.042	16,08
Nafarroa	605.876	109.560	17,26	395.596	65,29	105.720	17,45

Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak egina.

Ikusten denez, 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa eta 18 urtetik beherakoena ez da berdina lurralde osoan. Iruñean eta Iruñerrian dago adineko herritarren kopuru txikiena (%14,82) eta populazio gaztearen kopuru handiena (%18,29). Beste muturrean Nafarroako ipar-ekialdea dago, adineko pertsonen kopuru handiena (%24,96) eta gazteen kopuru txikiena (%13,65) bertan baitaude.

II.3. ETXE MOTA

Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren arabera, 2007. urtean 210.702 etxe zeuden Nafarroan (2001ean baino 21.930 gehiago eta 1991n baino 55.258 gehiago)

7. taula: Populazio osoa eta etheen kopurua Nafarroan, urtez urte

	1991	2001	2007
Biztanleak, osotara	512.259	556.263	605.876
Etxe kop.	155.444	188.772	210.702
Pertsonak/etxeko	3,30	2,95	2,88

Iturria: NEI. 1991ko eta 2001eko populazio eta etxebizitza errolda. Bizi-baldintzei buruzko inkesta. 2007.

Nafarroako etxeetan batez besteko pertsona kopurua murriztuz joan da, eta 1991n 3,30ekoa izatetik 2,88koa izatera pasatu da 2007an. Azken sei urteetan populazioak %8,92 egin du gora, eta etheen kopuruak, berriz, %11,62.

8. taula: Etxeen proportzioa kide kopuruaren eta urtearen arabera

	1991		2001		2007	
	K	%	K	%	K	%
Etxe kop. guztira	155.444		188.772		210.702	
Pertsona 1	21.140	13,60	37.761	20,00	38.405	18,23
2 pertsona	34.096	21,93	45.576	24,14	57.038	27,07
3 pertsona	31.481	20,25	40.370	21,39	46.906	22,26
4 pertsona	36.942	23,77	42.081	22,29	46.212	21,93
5 pertsona edo gehiago	31.785	20,45	22.984	12,18	22.141	10,51

Iturria: NEI. 1991ko eta 2001eko populazio eta etxebizitza errolda. Bizi-baldintzei buruzko inkesta. 2007.

Aurreko taulan islatutako datuen azterketa egirik, hauxe nabarmendu daiteke:

- Pertsona bakarreko etheen kopuruaren jaitsiera, 2001eko kopuruarekiko.
- Bi edo hiru pertsonak osatutako etheen kopurua goraka joan dela.

• Lau, bost pertsonak edo gehiagok osatutako etheen kopurua goraka joan dela.

Ondoko taulan ikusten denez, **etxeetako kide kopurua**, gizarte zerbitzuen barrutien arabera azterturik, ez da oso desberdina batetik bestera.

9. taula: Nafarroako etxeetako kide kopuruari buruzko adierazleak, 2001ean eta gizarte zerbitzuen barrutien arabera

	Etxeak	Batez besteko kide kop.	Bakarrik bizi diren pertsonen proportzioa
Ipar-mendebaldea	16.551	3,1	19,6
Ipar-ekialdea	7.001	2,8	25,1
Lizarra	23.466	2,8	19,7
Tafalla	14.824	2,9	20,4
Tutera	28.525	2,9	18,8
Iruña	64.537	2,8	21,6
Iruñerria	33.868	3,1	15,6
Nafarroa	188.772	2,9	20,0

Iturria: 2001eko biztanle eta etxe erroldan oinarrituta egindako gizarte zerbitzuen maparen zirriborrotik hartua.

Ondotik etxeen ezaugarri batzuk ematen dira, Nafarroako Estatistika Institutuak egindako Bizi-baldintzei buruzko 2007ko Inkestatik ateratakoak:

- 65 urtetik gorako pertsonen %32 bakarrik bizi da.
- Bakarrik bizi diren pertsonen %47,23 65 urte-tik gorakoak dira.
- Nafarroako etxeen %8,90ean ezgaitasuna duen pertsona bat dago. Portzentajea apalagoa da pertsona bakarreko etxeen kasuan, %3,30ekoa zehazki.
- Etxeen %74,85ean gizon bat da familia-burua.
- Familia-burua emakumezkoa den etxeen %38,66 pertsona bakarrekoak dira. Portzentajea

apalagoa da gizonezkoen kasuan, %11,36koa baita.

- Familia-burua emakumezkoa duten etxeen %15,40 guraso bakarreko etxeak dira. Familia-burua gizonezkoa duten etxeen kasuan, berriz, portzentaje hori %1,6koa da.

PENTSIODUNAK

Ondotik Nafarroako pentsiodunei buruzko datuak ageri dira, bai kotizaziokoak bai kotizazio gabekoak. Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2007ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Komunitatean 114.297 pertsonak jasotzen zituzten kotizazioko pentsioak, eta 3.812 pertsonak, aldiz, kotizazio gabekoak.

10. taula: Nafarroako Foru Komunitateko kotizazioko pentsioak. 2003., 2004., 2005., 2006. eta 2007. urteak

	2003	2004	2005	2006	2007
Ezgaitasun iraunkorra	10.185	10.369	10.558	10.793	10.913
Erretiroa	63.619	64.726	67.615	69.510	71.123
Alarguntasuna	27.103	27.539	27.863	28.209	28.572
Zurztasuna	3.260	3.189	3.191	3.149	3.172
Familiakoen aldekoak	624	591	555	541	517
Guztira	104.791	106.414	109.782	112.202	114.297

Iturria: Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren urteko estatistika txostenak.

11. taula: Nafarroako Foru Komunitateko kotizazio gabeko pentsioak. 2003., 2004., 2005., 2006. eta 2007. urteak

	2003	2004	2005	2006	2007
3. adinekoak	2.957	2.707	2.569	2.345	2.235
Erretiroa	2.650	2.462	2.390	2.253	2.170
Asistentzia pentsioak	307	245	179	92	65
Ezgaitasuna	1.824	1.718	1.650	1.551	1.464
ELBARRIAK GIZARTERATZEKO LEGEA	687	618	531	467	390
Elbarritasuna	1.137	1.100	1.119	1.084	1.074
Guztira	4.781	4.425	4.219	3.896	3.699

Iturria Gizarte Gaietako Departamentua.

MEDEKOTASUNA DUTEN BIZTANLEAK


Nafarroako Mendekotasun Agentziak datu hauek eman ditu, Nafarroan mendekotasuna duten pertsonak baloratzeko prozesuari ekin zitzaionetik urtebetetik gora iragan delarik:

12. taula: Nafarroan mendekotasuna duten pertsonak, baloratu direnak, adinaren eta generoaren arabera, 2007ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte


Mendekotasun maila	Adina		<18		>=18 eta <65		>=65 eta <80		>=80		Guztira	
	Sexua	Gizonezk oak	Emakum ezkoak	Gizonezk oak	Emakum ezkoak	Gizonezk oak	Emakum ezkoak	Gizonezk oak	Emakum ezkoak	Gizonezk oak	Emakum ezkoak	Guztira
Mendekotasun handia(III. gradua)	1. maila	13	15	37	42	99	122	197	547	346	726	1072
	2. maila	56	31	214	169	223	300	433	1472	926	1972	2898
	Guztira	69	46	251	211	322	422	630	2019	1272	2698	3970
Mendekotasun larria II. gradua	1. maila	21	16	99	93	135	160	204	526	459	795	1254
	2. maila	14	16	154	128	125	187	179	643	472	974	1446
Guztira	35	32	253	221	260	347	383	1169	931	1769	2700	
Mendekotasun moderatua (I. gradua)	1. maila	6	3	59	70	80	144	139	338	284	555	839
	2. maila	11	7	104	105	94	150	172	440	381	702	1083
	Guztira	17	10	163	175	294	312	311	778	665	1257	1922
GUZTIRA		116	84	665	607	756	1063	1324	2868	5724	8592	

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia


2. grafikoa: Portzentajea, mendekotasun graduaren arabera



3. grafikoa: Mendekotasun handia dutenen %, adinaren arabera



4. grafikoa: Mendekotasun handia dutenen %, sexuaren arabera




13. taula: Nafarroan mendekotasuna duten pertsonak, baloratu direnak, eskualdeen arabera, 2007ko urtarrilaren 1etik apirilaren 1era bitarte

Eskualdea	Mendekotasun handia		Mendekotasun larria dutenak		Mendekotasun moderatua dutenak		Guztira
	1. maila	2. maila	1. maila	2. maila	1. maila	2. maila	
Ipar-mendebaldea	141	276	138	130	80	87	852
Ipar-ekialdea	63	127	72	58	38	44	402
Lizarra	156	468	208	243	126	163	1.364
Tafalla	74	215	137	143	90	101	760
Tutera	188	428	234	189	177	146	1.362
Iruña eta Iruñerria	450	1384	465	683	328	542	3.852
Guztira	1.072	2.898	1.254	1.446	839	1.083	8.592

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia.

5. grafikoa: Mendekotasuna duten pertsonak, baloratu direnak, Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera



Aurreko datu horietan jasota daude Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea onetsi ondoren irekitako prozesua hasi zenetik Nafarroan mendekotasunaren balorazioa jaso duten pertsona guztiak. Denbora horretan horietatik 1.048 pertsona hil dira; %74,62k mendekotasun handiaren balorazioa zuten, eta %19,75ek mendekotasun larriarena.

2007ko abenduan 8.592 pertsonak zuten egina mendekotasunaren balorazioa, gradu desberdinetan. Egun, populazio horren ezaugarri aipagarriak hauek dira: adin handiko pertsonak, mendekotasuna duten gehienak emakumeak izatea, eta gehiengoa mendekotasun handia (%41,44) eta larria (%28,18). Halere, azken ezaugarri hori ez da nolanhartu behar, kontuan hartuta iragandako denbora eta, logikoa denez, mendekotasuna duen

populazioak graduen arabera piramide egitura izan behar duela, Mendekotasun Legearen pixkanakako aplikazioak (mendekotasun moderatua dutenen eskubideak ez dira 2012ra arte finkatuko) eraginen zuten, beharbada, sistemaren babesean jartzen lehenak arazo handienak dituztenak izatea.

II.4. NAFARROAN MENDEKOTASUNA DUTEN BIZTANLEEN PROIEKZIOA.

Mendekotasunaren Liburu Zuriaren I. kapituluari, "Oinarri demografikoak: mendekotasuna duten pertsonen kalkulua, ezaugarriak eta profilak" izenekoa, urte horretan mendekotasuna duten pertsonak zenbat diren kalkulatzeko du EDES-99 inkestaren bidez lortutako datuekin, bai eta hiru proiektzio egin ere 2005., 2010. eta 2015. urteetarako. Datu horiek, 2005eko erroldaren datuak eta

NElako eginiko populazio proiektzioak izan dira Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak erabili dituen informazio iturriak Nafarroako Foru Komunitatean 2005., 2010. eta 2015. urteetarako mendekotasuna duten pertsonen dagokienez aurreikusten diren portzentajei buruzko hurbilketa egiteko.

Garrantzitsua da ohartaraztea Liburu Zurian mendekotasun handirako eta larrirako jasotako aurreikuspenak (guztira 8.000 pertsona) gainditu egin direla Nafarroan, azterketa honen aurreko atalean ikusi dugunez.


Populazioaren adinen arabera egitura ikusirik, ondorioa da, eta hala dio Liburu Zuriak, 2011ra arte mendekotasuna duten pertsonen kopurua 75 urtetik gorako pertsonen artean gertatuko dela batez ere: "Horren ondorioa izanen da XXI. mende honen hasierako hamar urteetan asko handituko dela epe luzeko zainketen eskaera" (Mendekotasunaren Liburu Zuria. I. kapitulua, 7.4 puntua).

2011. urtetik aurrera egoera aldatuko litzateke. 65etik 75 urtera bitarteko pertsonen kopuruen gehikuntza 75 urtetik gorako multzoak izanen duena baino handiagoa izanen da, erretiroko multzoetan sartuko diren adin-taldeetan aurrekoetan baino kide gehiago izanen direlako.


Aurreikuspenen arabera, mendekotasuna (hiru graduetan, handia, larria eta moderatua) duten nafarren kopuruak %17,60ko igoera izanen du 2005etik 2015era. Mendekotasuna duten pertsonen tasak ere gora egingen du populazio osoarekiko (2005ean mendekotasuna zuten pertsonen tasa populazio osoaren %6,31koa zen, eta 2015ean %6,55ekoa).

Ondoko grafikoetan adierazten denez, mendekotasun handia 80 urtetik gorako pertsonekin lotuta egonen da, geroz eta gehiago, eta mendekotasun larria eta moderatua, berriz, pertsona gazteagoekin.


6. grafikoa: Mendekotasuna duten pertsonen portzentajea, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera, 2006an



7. grafikoa: Mendekotasuna izango duten pertsonen portzentajea, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera, 2010ean



8. grafikoa: Mendekotasuna izango duten pertsonen portzentajea, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera, 2016an




Iturria: Egileek prestatua Mendekotasunaren Liburu Zuriaren eta NEIaren datuetan oinarriturik.

Azterketa horrek berak aipatzen du mendekotasuna duten pertsonen %63,93 emakumeak direla eta %36,07 gizonezkoak. Mendekotasun maila zenbat eta handiagoa izan, alde hori ere orduan

eta handiagoa: mendekotasun handia dutenen artean %66,47 emakumeak dira eta %33,53, berriz, gizonak. Eta mendekotasun larria dutenetatik %61,16 emakumeak dira.

9. grafikoa: Mendekotasuna duten pertsonen proiektzioa 2015erako, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera



II.5. GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAKETA, LURRALDEKOA ETA FUNTZIONALA.

Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeak Foru Gobernuaren eta udalen (toki entitateak) esku utzi zuen Nafarroako gizarte zerbitzuen eskumena.

Arau horrek jarduketarako bost sektore ezarri zituen, haietako bat zeharkakoa eta batez ere oinarrizko gizarte zerbitzuekin lotua, "familia eta komunitatea", eta beste lauak bi modutara bereizita: adinaren arabera populazio taldeak, hau da, "haurrak eta gazteak" eta "hirugarren adinekoak", eta arreta eman beharreko arazo mota, "elbarritasunak" eta "gizarteratzea" alegia.

LURRALDE ANTOLAKETA: OINARRIZKO ESKUALDEAK ETA BARRUTIAK.

Urtarrilaren 16ko 11/1987 Foru Dekretuak, Oinarrizko gizarte zerbitzuak arautu zituenak, haien mugaketa geografikoa oinarrizko osasun eskualdea izanzen zela ezarri zuen.

Oinarrizko osasun eskualdea osasun-etxeen eta oinarrizko osasun laguntzako taldeen esparrua da.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen sistemak horrela funtzionatu du Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea berriki onetsi arte, lurralde banaketa berri hauek ezarri baititu:

Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak.

Orain arte, gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak, arreta sozialaren hastapeneko maila, ares-tian aipatutako araei jarraikiz ezarri izan dira. Zerbitzuak udalek, udalen batasunek eta gizarte zerbitzuen mankomunitateek kudeatu dituzte. Iruñeko kasuan, oinarrizko arreta auzo unitatetan antolaturik dago. Maila hau ongi ezarria dago Nafarroako gizarte zerbitzuen sisteman: legez aitortua dago (Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea) eta bi hamarkadatan bildutako esperientzia du. Garai hartan erabili zen irizpidea oinarrizko osasun eskualdeekin bat egitea izan zen, zerbitzuen arteko koordinazioa eta herritarrentzat lurralde banaketa ulergarria izan dadin errazteko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege berriak, 41. eta 42. artikuluetan adierazten du oinarrizko eskualdeen eta jarduketa bereziko oinarrizko eskualdeen arteko lurralde mugaketa Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarri eta erregela-menduz onetsiko dela.

Gizarte zerbitzuen barrutiak

Izatez, oinarrizko zenbait eskualderen elkartek dira, gaur arte zerbitzu mota zehatzen esparrua izan ez direnak, ez eta inolako legeren xede ere,

Gizarte Zerbitzuen Foru Lege berria onetsi arte. Aitzitik, Nafarroako I. Plan Gerontologikoak (1997-2000) barrutiak ezarri zituen adinekoen eskura zeuden baliabideak aztertzeko, baita zerbitzu jakin batzuetan lortu beharreko estaldura batzuk adierazi ere. Hauek ziren barrutik horiek: Tuter, Tafalla, Lizarra, Ipar-ekialdea, Ipar-mendebaldea eta Iruña eta Iruñerria.

2004tik aurrera, zenbait barrutitan gizarteratze-ko taldeak (Lizarra, Tafalla eta Tuter) eta haur eta nerabeei arreta emateko taldeak (Lizarra) ezarri ziren, oinarrizko gizarte zerbitzuei eta, zehazki, gizarteratze eta haur eta familientzako arreta programei laguntzeko.

Gizarte zerbitzuen barrutietarako zerbitzuak ezarriak dituzten bi adibide bakarrak, oraingoz, hauek dira: buru-nahaste larria duten pertsonen arretarako programa, batetik, eta oinarrizko gizarte zerbitzuei laguntzeko aipatutako taldeak bestetik.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak lurralde antolaketa aurreikusten du, barrutien arabera, barrutia izanik oinarrizko eskualdeen elkartea, gizarte zerbitzuetako zentroen esparru gisa. Barruti horiek eta atxikiak dituzten zerbitzuak Plan Estrategikoan ezarri behar dira.

1. mapa: Gizarte zerbitzuen barrutiak eta oinarrizko eskualdeak barrutien arabera



1. Ipar-mendebaldea: Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Altsasu, Elizondo, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza, Lesaka, Ultzama

2. Ipar-ekialdea: Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Agoitz, Auritz, Izaba, Zaraitzu, Zangoza.

3. Iruña eta Iruñerriko barrutia: Hauek hartzen zituen: Iruña (11 auzo-unitaterekin), Barañain, Burlata, Berriozar-Antsoain, Zizur, Uharte, Noain, Orkoien, Atarrabia.

4. Lizarrako barrutia. Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Allo, Antzin-Ameskoa, Los Arcos, Lizarra, Lodosa, Gares, San Adrián, Viana, Villatuerta.

5. Tafallako barrutia. Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Artaxoa, Zarrakaztelu, Erriberri eta Azkoién, Tafalla.

6. Tuterako barrutia. Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Buñuel, Cascante, Cintruénigo, Corella, Valtierra, Tuterá.

GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAKETA FUNTZIONALA: OINARRIZKO ARRETA ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA

Azken urteetan, gure gizarte zerbitzuen sistemak erantzun ugari eman ditu, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, herritarren behar, asmo eta eskaeren aurrean.

Erantzun hori agerikoa da, administrazio publikoek eta arlo honekin zerikusia duten beste batzuek gizarte zerbitzuen arloko tresnak eta jarduerak gehitzeko egindako ahaleginak nabarmenak izan baitira.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 Foru Legeak esku-hartze sektoreen lehendabiziko sailkapena egin zuen, gaur egun arte erabili dena sistemaren zerbitzuak eta prestazioak antolatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak ez du sektore edo barrutien araberrako banaketarik egiten, eta irekita uzten du. Bereizketa ezartzen du, ordea, Oinarrizko Arreta Zerbitzuen edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuen artean.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroan, berriz, jarduketa arloetako bereizketa hori ezarri da, sailkapenerako bi irizpide erabiliz, bata zerbitzu motei dagokiena eta bestea esku-hartze sektoreei. Hiru zerbitzu mota bereizten ditu:

- Arreta anbulatorioa: oinarrizko laguntzako edo/eta laguntza espezializatuko gizarte zerbitzue-

tan edo etxean bertan herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak, arreta programatuarekin eta langile kualifikatua eta erabiltzailea zuzenean harremantzen jarritz.

- Egoitzako arreta: zentroetan edo, kasua bada, familietan ematen den zerbitzua (pertsonaren benetako egoitza bihurtzen dira), bai aldi baterako bai epe luzera, ostatua, mantenua eta habilitazio edo errehabilitazioko jarduera espezializatuak emateko, pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontutan hartuta.

- Eguneroko arreta (egunekoa nahiz gauekoa): egoitzetan edo jarduera zentroetan (okupazionala, habilitaziokoa, errehabilitaziokoa eta esku-hartze berariazkoak ematekoa) ematen den zerbitzua, ordutegi jarraituan, egunaren zati handienera eta egoitzan ingresatzea ekarri gabe.

Esku-hartzeen araberrako sailkapenari dagokionez, hauxe ezartzen du: Arreta ematea hauei: mendekotasuna dutenei, adinekoei, ezgaitasuna duten pertsoneri, buru-eritasuna duten pertsoneri, gizartean bazterturik edo baztertuak izateko arriskuan daudenei, adingabeei eta genero indarkeriaren biktimei.

II.6. GIZARTE ZERBITZUEN ERANTZUNA

Ondotik ematen da gizarte zerbitzuen sistema publikoak gaur arte eskaini duen erantzuna, barne hartzen dituen oinarrizko arreta, esku hartzeko zeharkako maila, eta arreta espezializatua, adinaren araberrako populazioa tartearak alde batetik eta arazo mota, bestetik, bereiziz.

Gizarte zerbitzuen sistemak esku hartzeko arlo bakoitzaren arretarako ematen dion erantzuna honakoetara bideratzen da:

1. Diru-sarrerak bermatzea: Kotizaziorik gabeko aldizkako prestazio ekonomikoak, gutxienerako diru-sarrerak bermatzeko.

2. Prebentzioa eta sustapena: zenbait egoera, alegia, adingabeak gizartean bazterturik, babesik gabe edo gatazka sozialean egotea eragiten duten arazoak, edo bizimodu autonomoa izatea mugatzen dutenak, sortu edo okerragotzeari aurrea hartzeko xedea duten jarduketak, horrez gain, gizarteratzea, autonomia, edo/eta adingabeen eta haien familien babesa, garapen eta ongizatea ziurtatzea sustatzen dutenak.

3. Etxean edo/eta ingurunean gelditzea: pertsona horiei, ahal denera, etxean edo ohiko ingurunean gelditzeko aukera emateko jarduketak, arretarako eredu integral eta profesionalizatua erabiliz, haien behar sozialak, osasunekoak, errehabilitaziokoak, akonpainamendukoak, asistentzialak, kul-

turalak eta aisiakoak asetzeko, laguntzarako berezko sareei eustea sustatuz.

4. Egoitzako arreta: zentroetan edo, kasu bada, familietan ematen diren zerbitzuak (pertsonek benetako egoitza bihurtzen dira), bai aldi baterako bai epe luzera, ostatua, mantenua eta habilitazio edo errehabilitazioko jardura espezializatuak emateko, pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ondotik azaltzen da zein den egungo sistemak horietako bakoitzari ematen dion erantzuna.

OINARRIZKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ERANTZUNA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta, Iruñeko kasuan, auzo-unitateak, toki entitateen eskumenekoak, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren oinarrizko unitateen muina dira, eta sistemaren sartzeko berezko ataria. Herritarrengandik eta familietatik eta gizarretik hurbilen dagoen maila dira. Nafarroak 45 toki entitate daude oinarrizko gizarte zerbitzuen titular direnak eta oinarrizko gizarte zerbitzuak 56 dira, horietatik 12 Iruñeko auzo-unitateak.

Zerbitzu sare hau Foru Komunitate osoan dago zabaldua, eta profesional kualifikatuen kopurua handia da bertan; arreta behar duten herri askotara iristen da. Era berean, sistemaren prestazioetarako sarbidea da.

Ondotik azaltzen da oinarrizko gizarte zerbitzuen jardura eta haien erantzuna.

14. taula: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen jardura.

2007	
Arreta jaso duten pertsonen kopurua	63.102
Esku-hartzeen kopurua	75.540
Balorazio sozialaren kopurua	91.344
Jarduneko espedienteen kopurua.	43.096
Profesionalen kopurua	721

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzaren Zerbitzua.

15. taula: Gizarte zerbitzuen jardunaren bilakaera

Prestazio mota	2005	2006	2007
Espedienteak, guztira	30.858	34.697	43.096
Erabiltzaileak, guztira (errepikatu gabe)	46.022	51.542	63.102
Hasitako esku-hartzeen kopurua	26.228	27.784	37.305
Esku-hartzeak, guztira:	50.718	58.575	75.540
Balorazio kopurua	60.550	71.200	91.344
Eskaera kopurua	57.815	67.061	86.258
Erabilitako baliabide kopurua	59.118	68.341	87.755

Iturria: SIUSS 2007 Memoria. Oinarrizko Laguntzaren Atalak egina

Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta.*Prebentzioa eta sustapena:*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa: mendekotasuna duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen behar sozialak atzematea, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako eran-

tzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatueta bideratzeko.

Etxean edo leta ingurunean gelditzea

Etxeko Arreta Zerbitzua: mendekotasuna dutela aitortua duten pertsonen aukera izan dezaten ohiko ingurunean gelditzeko, laguntza pertsonala, etxekoa, psikosoziala, soziokomunitarioa eta tekniko emanaz.

16. taula: Mendekotasun handia eta larria bi mailetan eduki eta Etxeko Arreta Zerbitzuaren arreta jasotzen duten pertsonen kopurua, guztira

GZen BARRUTIA	MEND. HANDIA 1	%	MEND. HANDIA 2	%	LARRIA 1	%	LARRIA 2	%	GUZTIRA	%
IRUÑA	27	21,43	60	23,90	20	16,81	31	28,44	138	22,81
TUTERAKO BARRUTIA	19	15,08	38	15,14	34	28,57	18	16,51	109	18,02
LIZARRAKO BARRUTIA	13	10,32	44	17,53	18	15,13	21	19,27	96	15,87
IRUÑERRIKO BARRUTIA	23	18,25	32	12,75	16	13,45	11	10,09	82	13,55
TAFALLAKO BARRUTIA	4	3,17	13	5,18	9	7,56	13	11,93	39	6,45
IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA	29	23,02	45	17,93	15	12,61	9	8,26	98	16,20
IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA	11	8,73	19	7,57	7	5,88	6	5,50	43	7,11
GUZTIRA	126	100,00	251	100,00	119	100,00	109	100,00	605	100,00

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzaren Zerbitzua.

17. taula: Etxeko Arreta Zerbitzuak mendekotasun handia eta larria dutenei emandako arreta orduak, Gizarte Zerbitzuen Barrutien arabera

GZen BARRUTIAK	HANDIA 1	%	HANDIA 2	%	LARRIA 1	%	LARRIA 2	%	URTEKO ORDU KOPURUA	%
IRUÑA	884,00	33,06	1.775,00	32,69	551,00	25,76	892,00	40,20	4.102,00	32,92
TUTERAKO BARRUTIA	400,50	14,98	745,50	13,73	453,00	21,18	302,25	13,62	1.901,25	15,26
LIZARRAKO BARRUTIA	170,25	6,37	823,51	15,17	251,40	11,75	385,83	17,39	1.630,99	13,09
IRUÑERRIKO BARRUTIA	464,98	17,39	742,32	13,67	261,66	12,23	164,16	7,40	1.633,12	13,11
TAFALLAKO BARRUTIA	78,00	2,92	189,00	3,48	173,00	8,09	243,00	10,95	683,00	5,48
IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA	499,48	18,68	762,91	14,05	288,35	13,48	114,56	5,16	1.665,30	13,36
IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA	177,00	6,62	391,00	7,20	160,50	7,50	117,00	5,27	845,50	6,79
GUZTIRA	2.674,21	100,00	5.429,24	100,00	2.138,91	100,00	2.218,80	100,00	12.461,16	100,00

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzaren Zerbitzua.

18. taula: Etxeko Arreta Zerbitzuak mendekotasuna duten pertsonen emandako arretaren ordu intentsitatea

GZEn BARRUTIA	MENDEKOTASUNA DUTEN ERABILTZAILAK	ORDUAK
IRUÑA	138	4.102,00
TUTERAKO BARRUTIA	109	1.901,25
LIZARRAKO BARRUTIA	96	1.630,99
IRUÑERRIKO BARRUTIA	82	1.633,12
TAFALLAKO BARRUTIA	39	683,00
IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA	98	1.665,30
IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA	43	845,50
GUZTIRA	605	12.461,16

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzako Zerbitzua.

Adinekoentzako arreta

Prebentzioa eta Sustapena

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, 65 urtetik gorako pertsonen behar sozialak atzemate, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

Etxean edo/eta ingurunean gelditzea

Etxeko Arreta Zerbitzua: berez baliatzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonen aukera izan dezaten ohiko ingurunean gelditzeko, laguntza pertsonala, etxekoa, psikosoziala, soziokomunitarioa eta teknikoa emanez.

19. taula: 2003-2007 urteetan Etxeko Arreta Zerbitzuan arreta jaso duten 65 urtetik gorako erabiltzaileen banaketa

Urtea	Erabiltzaileen kopurua Zuzeneko arreta	Estaldura % Zuzeneko arreta
2003	3.675	%3,56
2004	4.211	%3,62
2005	3.776	%3,64
2006	3.637	%3,46
2007	3.660	%3,46

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzako Zerbitzua.

Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta

Atal honetan ezgaitasuna duten pertsona guztiak sarturik daude, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistemaren datuak ez baitaude jasota ezgaitasun motaren arabera bereizirik.

Prebentzioa eta Sustapena

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, 65 urtetik gorako pertsonen behar sozialak atzemateko xedea duena, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta,

behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

Etxean edo/eta ingurunean gelditzea

Etxeko Arreta Zerbitzua: ezgaitasuna duten pertsonen ohiko ingurunean gelditzeko aukera ematea, laguntza pertsonala, etxekoa, psikosoziala, soziokomunitarioa eta laguntza teknikoa emanez, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

20. taula: 2007an arreta emandako pertsona kopurua

Arreta jaso dutenen kopurua	Estaldura %
575	3,18

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzako Zerbitzua.

Gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonak.*Prebentzioa eta Sustapena*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonen behar sozialak atzemateko xedea duena, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehenetasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatueta bideratzeko.

Gizarteratze Programa, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan daudenak gizarteratzen laguntzeko xedea duena; jarduera nagusietako bat akonpainamendu soziala da.

Programa hori oinarrizko gizarte zerbitzu haue-
tan dago ezarririk: Altsasu, Barañain, Berriozar,
Burlata, Zarrakastelu, Lizarra, Etxarri Aranatz,
Noain, Orkoien, Iruña, San Adrián eta Viana eta
Iruñeko auzo-unitateak.

Egoitzako laguntza.

Pasadizokoentzako aterpetxeak: Zerbitzu honen xedea da gauerako ostatu ematea eta harrera egitea etxerik ez duten edo hura erabiltzerik ez duten pertsonen, Nafarroan bizi ez direnei, oinarrizko behar hori asetzeko adina baliabiderik ez dutenean.

21. taula: Tuterako Aterpetxearen erabilera datuak

	2005	2006	2007
Ostatu-gauen kopurua	1.703	1.554	1.782
Aterpetxea erabili dutenen kopurua	1.028	889	870

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzaren Zerbitzua.

22. taula: Altsasuko Aterpetxearen erabilera datuak

	2005	2006	2007
Ostatu-gauen kopurua	508	377	424

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzaren Zerbitzua.

23. taula: Iruñeko "Estalpean" zerbitzuaren erabilera datuak

	2005	2006	2007
Ostatu-gauen kopurua	3.637	4.835	4.176

Iturria: "Ostatu alternatiboa" gaiari buruzko memoriak. Oinarrizko Laguntzaren Atalak egina.

Babesgabeziako edo gatazka sozialeko egoeran edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeentzako arreta.

Oinarrizko Arretako Gizarte Zerbitzuek edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskumen hauek dituzte: haurren babesgabeziaren egoerak ikertu eta baloratzea, prebentzioko esku-hartzea babesgabeziaren arrisku egoeretan, adingabea familiarengandik bereiztea ez dakarten babesgabezia arin eta moderatuko kasuetako esku-hartzea, ikerketa eta balorazioa.

2007an, oinarrizko gizarte zerbitzuen 34 oinarrizko barrutitan zegoen ezarririk Haur eta Familien Arretarako Programa.

Prebentzioa eta Sustapena

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, babesgabezia pairatzen duten edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeen eta haien familien behar sozialak atzemateko xedea duena, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehenetasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatueta bideratzeko.

Haur eta Familien Arretarako Programa, adingabekoei haien garapen pertsonalerako bide emanen dien ingurunea ziurtatzeko, babesa eta laguntza pertsonala, familiakoa eta soziala emateko tresnen bidez.

24. taula: Arreta emandako kasuen kopuruaren bilakaera.

Kasu kopurua	2004	2005	2006	2007
Aurrekoak	803	784	1.035	1.440
Berriak	361	557	836	749
Kasuak, guztira	1.164	1.341	1.871	2.088
BAJAK	223	357	425	583
Gelditzen diren kasuak abenduaren 31n	941	984	1.446	1.244
Gehikuntza (altak – bajak)	138	200	411	166
Gehikuntzaren %	%17,18	%25,51	%39,71	%11,52

Iturria: Haur eta Familien Arretarako Programaren Memoriak. Oinarrizko Laguntzaren Atalak egina.

* Behin-behineko datuak, behin-behineko memoriaren zirriborroaren arabera

Genero indarkeriaren biktima direntzako arreta.

Gaur egun, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ekin-tzak gizarte sentsibilizatza eta prebentziora bideraturik daude.

Prebentzioa eta Sustapena

Emakumeari Laguntzeko udal zerbitzuak: Uda-letako gizarte zerbitzuak edo oinarrizkoak preben-tzio, diagnostiko, informazio eta bideratze neurriak eta Foru Komunitatean ezartzen diren beste batzuk gauzatzeko laguntza ematen duen sarea dira. Horrez gain, zenbait udalek Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua dute, lehenetsunezko xedea, bakarra ez bada ere, sexu erasoak edo tratu txarrak jasandako emakumeei arreta berezia ematea dutenak.

GIZARTE ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ERANTZUNA

Lehen esan dugunez, gizarte zerbitzu espezia-lizatu hartzailak populazioaren sektore jakin batzuk edo premia egoerak dira, espezializazio teknikoa edo esku hartzean zerbitzu batzuk esku-izatea eskatzen dutenak.

Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta.

2006ko abenduaren 14an, adinekoei eta ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko funtsezko-ak diren bi lege onetsi ziren. Lehendabizikoak, 39/2006 Legea, Autonomia Pertsonala sustatu eta mendekotasuna duten pertsonen arreta emateari buruzkoak, gizatalde horri Espainia osoan arreta emateko gutxieneko esparru bateratua ezarri zuen.

Arlo honetako eskumena autonomia erkidego-ena denez, bigarrenak, Gizarte Zerbitzuei buruzko

15/2006 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunita-tean mendekotasuna duten pertsonentzako arreta hartzen du bere esparruan; hortik aurrera, beraz, pertsona horiek, gizarte zerbitzuen hartzailen diren gainerako gizataldeek bezala, eskubide subjektibo perfektua izan dute, auzitegietan eska daitekeena alegia.

Kontuan hartuta muntako ekintzak jarri behar zirela abian, legegintzaldi honen hasieran betetako lehenengo jarduketetako bat Nafarroako Mendeko-tasun Agentzia sortzea izan zen, 2007ko irailean. Erakunde honek, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren mende, arlo honetako kudeaketa eskumenak hartu ditu bere gain gizarte zerbitzu espezializatuei dagokie-nez.

Azken hogeita bost urteotan, Nafarroako Gizar-te Zerbitzuen sistema publikoak plan eta programa sektorialen bidez eman die arreta mendekotasuna duten pertsonen, batez ere adinekoei eta ezgaita-suna duten pertsonen.


Gaur egun, Nafarroako Mendekotasun Agentzi-ak III. eta I. graduko mendekotasuna duten pertso-nek jasotzen duten arretaren inguruan ematen dituen datuak honela laburbil daitezke:

Mendekotasun handiaren balorazioa 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitarte jaso dutenei zerbitzu hauen bidez eman zaie arreta: Etxeko Arreta Zerbitzua (%9,5), mendekotasu-na duten pertsonak etxean gelditzeko eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntzak (%48), eguneko zentroetako zerbitzua, diru-laguntzekin osatua (%2,69) eta egoitzako zerbitzuarekin lotu-tako prestazio ekonomikoa; %16k baizik ez du jasotzen arreta egoitzetan, laguntza behar dute-ntzako plazetan.


Mendekotasun larriaren balorazioa jaso dutenen kasuan, berriz, lehen aipatutako zerbitzu eta prestazioen eredu bera errepikatzen da, baina aldaketa nabarmenak daude arreta zentroetan jasotzen duten pertsonen portzentajeetan.

Ondoko bi grafikoetan ageri dira arreta portzentaje horiek, salbu eta Larrialdiko Telefono Zerbitzua, oso zabaldua eta prestazio guztiekin bateragarria dena, egoitzakoekin salbu.

10. grafikoa: Mendekotasun handiaren balorazioa jaso dutenei emandako arreta.



11. grafikoa: Mendekotasun larriaren balorazioa jaso dutenei emandako arreta.



Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Aztertutako epean, etxean gelditzeko laguntzarako 9.334 eskaera aurkeztu dira, Nafarroan 2007ko urtarrilean egin zen deialdiaren babesean. Eskaera horien %94,94 ebatzi da, eta 4.243 onetsi, hau da, %45,46. Gutxieneko laguntzetara 135 bideratu ziren (%1,4).

3.178 eskaera ukatu ziren. Horietatik %81, mendekotasun larria edo handia duen pertsona izatea deklaratzeko behar adina punturik ez izate-agatik, laguntza horiek jasotzeko nahitaezko baldintzak.

25. taula: Gizarte zerbitzuen barrutietan arreta jaso duten pertsonen kopurua eta laguntza mota, 2007ko abenduan.

Laguntza mota	Eremu geografikoa	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
Familian zainketak jasotzeko prestazio ekonomikoa	Nafarroako ipar-mendebaldea	427
	Nafarroako ipar-ekialdea	211
	Lizarra	679
	Tafalla	383
	Tutera	713
	Iruña eta Iruñerria	1.602
GUZTIRA		4.015
Lehenengo etxeko laguntza	Nafarroako ipar-mendebaldea	155
	Nafarroako ipar-ekialdea	73
	Lizarra	331
	Tafalla	286
	Tutera	514
	Iruña eta Iruñerria	505
GUZTIRA		1.864

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Adinekoentzako arreta

Nafarroako Foru Komunitatean, 65 urtetik gorako pertsonen kopurua 105.720 da, hots, popula-


zioaren %17,45; horietatik %30,52 adin handikoak dira (80 urte edo gehiago), hau da, Nafarroako populazio osoaren %5,32.

26. taula: Adineko pertsonak Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera

Gizarte Zerbitzuen barrutia	Populazio osoa (Nafarroa)	65 urtetik gorakoak			% (populazio osoa)	% (65 urtetik gorako populazioa)
		Kop.		Kop.		
Ipar-mendebaldea	53.600	10.521	%19,63	3.083	%5,75	%29,30
Ipar-ekialdea	20.581	5.136	%24,96	1.866	%9,07	%36,33
Lizarra	70.768	15.415	%21,78	5.075	%7,17	%32,92
Tafalla	45.127	9.438	%20,91	3.050	%6,76	%32,32
Tutera	91.838	17.171	%18,70	5.418	%5,90	%31,55
IRUÑA ETA IRUÑERRIA	323.962	48.039	%14,83	13.769	%4,25	%28,66
NAFARROA	605.876	105.720	%17,45	32261	%5,32	%30,52

Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzua.

2. mapa: Adinekoen eta adin handikoen tasak Nafarroako eremu geografikoen arabera. 2007. urtea



Adinekoen ezaugarriak

- Adineko populazioaren banaketa: Adinekoen tasarik handiena ipar-ekialdean dago (%24,96), eta txikiena Iruñean eta Iruñerrian (%14,83), baina azken honetan dago adinekoen kopuru handiena (48.039 adineko), erkidegoko 65 urtetik gorako bizilagunen %45.

- Bizikidetzaren egoera: adinekoak, gehienbat, beren seme-alabekin bizi dira (%42,61) edo bikotearekin (%27,11). Pixkanaka gora doa Nafarroan bakarrik bizi diren adinekoen portzentajea (%17,13 2001ean).

- Prekarietate ekonomikoa: Pertsona hauetako gehienak diru-sarrerak oso txikiak dira, batez ere jasotzen duten pentsio bakarra kotizaziorik gabe-

koa denean; aitzitik, egoera hobetu da alargun pentsioak jasotzen dituzten emakumeen kasuan, Nafarroako Gobernuaren osagarria jasotzen baitute Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren parekoa egiteko.

- Goi mailako prestakuntza dutenak gizatalde honetako gazteenak dira eta, beraz, haien beharrik, diru-sarrerak, eroste ahalmena, ondasun eta zerbitzuen eskaera, kalitate mailen eskakizuna etab. ez datoz beti bat eskaintzarekin.

- Eginkizun aktiboa gizartean: batez ere erretiratuaren klubek eta elkarteek bultzatua, hainbat jarduerara betetzeko: beste pertsona batzuk zaintzea, boluntario lana, aisialdia, turismoa, harreman sozialak, kirola etab.

Diru-sarrerak bermatzea**27. taula:** Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen bilakaera

Prestazio mota	2003	2004	2005	2006	2007
Kotizaziorik gabeko pentsioa	2.650	2.462	2.390	2.253	2.170
Pentsio asistentziala	307	245	179	92	65
Alargun pentsioaren osagarria				8.605	8.537

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen garapen berria taiutu du, izan ere, lehengo sistema, zerbitzuak emateko garaian, asistentziara zuzendua zen, eta bertan administrazioa familien subsidiarioa zen, haiek ematen baitzuten arreta; sistema berria, ordea, bermean oinarritua da, eta bertan pertsonak gizarte zerbitzuen zenbait prestaziotarako eskubidea dute, eta zerbitzuak bete behar dituzten administrazioei eskatu ahal diote eskubide subjektibo hori, bai eta, azken instantzia gisa, auzitegietan ere. Halatan, gizarte zerbitzuen sistema publikoa eratzten da, Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatua, herritarrek eskatu ahal dituzten prestazioak dituena.

Foru legeak aurreikusitakoaren arabera, Foru Komunitateko lurralde osoan aplikatuko diren sistema publikoko prestazioak jasotzeko tresna gizarte zerbitzu orokorren zorroa da (19. artikulua). Beraz, zorro horretan bilduta daude Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuz-

nekoak diren sistema publikoaren prestazioak eta, haiekin batera, toki entitateen eskumenekoak diren oinarrizko arretako prestazioak, foru legearen zioen azalpenean aipatzen den gutxieneko homogeneoa, arauaren 20. artikuluan ezarritakoa, osatzen baitute, Nafarroako herritar guztientzat bermatu beharrekoa.

Ildo horretan, gizarte zerbitzu orokorren zorroak zerbitzuak emateko sistema unibertsal bat finkatzen du, helburu hori lortzeko behar diren baliabide publikoak sendotuz eta hedatuz.

Bestalde, zorroak, legeak agindutakoa betez, prestazio bermatuak eta bermatu gabekoak bereizten ditu, hau da, eskubide subjektibo diren aldetik eskatu ahalko direnak eta aurrekontuko diruaren arabera baizik emanen ez direnak.

Zorroan sartutako prestazioei dagokionez, zorroak bakoitzaren helburua ezartzen du. Beraz, gizarte zerbitzu orokorren zorroak antolatu, definitu eta egituratuko du gizarte zerbitzuen sistema publikoaren eredu berria eta erabiltzaileen azterketan jorratu beharko den bidea ezarriko du. Horrela baizik ez gara gai izanen zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak bermatzeko, prestazio bakoitza betetzeko baldintzak, prestazioan ezarritako epean, betetzen dituzten pertsonen beharretara egokituta.

III. BALIZKO ESKAERAREN AZTERKETA**III.1. BALIZKO ESKAERA**

Ondoren, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak indarra izanen duen epean (2008-2012) gizarte zerbitzuen sistemak erantzun beharreko balizko eskaerari buruzko zenbait datu ematen ditugu.

Kasu batzuetan arreta eman beharreko populazioari buruzko kalkuluak dira eta, beste batzuetan, genero indarkeriaren eta buru-nahaste larriaren kasuetan, 2007an arreta jaso duten bizilagunen kopuruari buruzkoak. Gizartean bazterturik dauden datuetan bizi baldintzei buruzko inkestaren inguruko informazio garrantzitsua jaso da, aipatutako gertaera zehatzago ikusteko.

MENDEKOTASUNA

86. taula: Mendekotasuna duten pertsonen buruzko proiektzioak, graduaren eta adinaren arabera

	2008	2009	2010	2011	2012
6tik 64ra bitarte					
Handia	577	578	578	575	572
Larria	541	546	551	552	552
Moderatua	365	369	372	374	375
Guztira	1.483	1.492	1.501	1.500	1.498
65etik 79ra bitarte					
Handia	744	744	743	736	729
Larria	607	607	606	602	599
Moderatua	468	466	464	462	460
Guztira	1.819	1.816	1.814	1.801	1.788
>80					
Handia	2.649	2.771	2.898	3.000	3.105
Larria	1.552	1.624	1.700	1.763	1.829
Moderatua	1.089	1.134	1.180	1.217	1.254
Guztira	5.290	5.529	5.778	5.980	6.188
Guztira					
Handia	3.970	4.092	4.219	4.310	4.405
Larria	2.700	2.777	2.857	2.917	2.980
Moderatua	1.922	1.968	2.017	2.053	2.089
Guztira	8.592	8.837	9.093	9.280	9.474

Iturria: egileek prestatua Mendekotasunaren Liburu Zuriaren eta NMAren datuetan oinarriturik.

1. Mendekotasuna duten pertsonen kopuruak izanen lukeen igoera, 2005etik 2010era eta 2010etik 2015era, Espainiako lurralde osorako mendekotasunari buruzko liburu zuriaren arabera.

2. Igoera hori zati 5 egin da urteko igoera lortzeko.

3. Portzentaje hori Nafarroan 2008ko urtarrilaren 1era arte mendekotasunaren balorazioa jaso dutenen kopuruari aplikatu zaio.

ADINEKO PERTSONAK

87. taula: Adinekoen eta adin handikoen kopuruen joera Nafarroan (2007-2012)

Urtea	Nafarroako populazio osoa	Adinekoak, guztira		65etik 79ra bitarte		80 urtetik gora	
		Absolutua	Populazio osoaren %	Absolutua	Populazio osoaren %	Absolutua	Populazio osoaren %
2007	605.876	105.720	17,45	73.459	12,12	32.261	5,32
2008	611.848	109.398	17,88	74.951	12,25	34.447	5,63
2009	617.448	111.325	18,03	75.637	12,25	35.688	5,78
2010	622.659	113.448	18,22	76.524	12,29	36.923	5,93
2011	627.640	11.567	18,43	77.576	12,36	38.097	6,07
2012	632.515	118.027	18,66	78.748	12,45	39.215	6,20

Iturria: Egileek prestatua Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan oinarriturik. Populazioaren proiektzioak Oinarria 2001eko errolda.

Adinekoen tasaren igoera handia proiektaturik dago, eta batez ere adin handikoena, Estatistikako Institutu Nazionalaren proiektzioak kontuan harturik.

EZGAITASUNA DUTEN PERTSONAK.

88. taula: 2007-2011 urteetan ezgaitasuna izanen duten pertsonen proiektzioa

Urtea	Nafarroako populazio osoa	Guztira	
		Absolutua	Populazio osoaren %
2007	605.876	30.760	%5,07
2008	611.848	31.020	%5,07
2009	617.448	31.304	%5,07
2010	622.659	31.568	%5,07
2011	627.640	31.812	%5,07
2012	632.515	32.068	%5,07

(*) Ezgaitasuna duten pertsonen kopurutik mendekotasun handiaren eta larriaren balorazioa jaso dutenak kendu dira. Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak egina.

BURU-NAHASTE LARRIA

Buru eritasun larriek eta iraunkorrek erasandako bizilagunen errolda osatuak ditugunez, kalkulak zeharkako kalkuluen bitartez egin behar dira.

Kontuan harturik Nafarroako Estatistika Institutuak 2007ko urtarrilaren 1ari dagokionez emandako populazio datuak, Nafarroak 605.876 biztanle ditu, horietatik 395.198 18tik 65 urtera bitartekoak.

Halaber, DSM IV-R.k (Buru-eritasunaren Diagnostikorako Esku-liburua, IV, bertsio berrikusia) onartzen duen portzentajea hartzen badugu, hau da, populazioaren %1ek dituela buru-nahaste larri-

ak, 3.952 pertsona inguruko kopurua izanen genuke.

Nolanahi ere, badugu datu askoz zehatzago bat, lehenago aipatutako diagnostikoetako bat bete eta Adimen Osasunaren Sarean arreta jasotzen duten pertsonen kopurua alegia. Adimen Osasuneko Zuzendariordetzaren memoriaren arabera **3.123 pertsona** dira.

Bibliografiak eta beste autonomia erkidego batzuetako esperientziek erakusten dutenez, pertsona horien %40k erabiliko luke programan proposatutako baliabideetakoren bat, beraz esanenezake **jomugako populazioa 1.250 pertsonak** osatuko luketela.

89. taula: Buru-nahaste larria duten pertsonen kopuruaren proiektzioak

Jatorria	Adimen osasunaren sarean Buru-nahaste larriko programan arreta jaso duten gaixoak	Programako baliabideen erabiltzaileen jomugako populazioa (%40)
Iruña eta Nafarroako gainerako eskualdeak	2.319	928
Tutera	350	140
Lizarra	269	108
Tafalla	185	74
GUZTIRA	3.123	1.250

Iturria: Adimen Osasuneko Zuzendariordetza eta Nafarroako Mendekotasun Agentzia.

GIZARTE BAZTERKETA

90. taula: Pobreziaren arriskuko adierazleak bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera

2006. urtea Definizioa	Lehen mailako adierazleak	
	UE PRIM-1 Pobrezia arriskuaren tasa transferentziak egin ondoren	UE PRIM-2 Pobrezia arriskuaren atalasea (€)
Andaluzia	18,2	5.528,4
Aragoi	17,2	7.568,0
Asturias	16,8	7.289,4
Balearrak	18,7	8.039,6
Kanariak	20,3	6.269,2
Kantabria	14,2	7.266,7
Gaztela-Mantxa	19,5	5.840,0
Gaztela eta Leon	21,0	6.272,9
Katalunia	19,0	8.276,4
Extremadura	17,4	4.756,4
Galizia	18,5	6.253,0
Errioxa	20,4	6.953,8
Madril	19,3	7.984,0
Murtzia	21,2	6.098,7
Nafarroa	18,0	9.140,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	18,4	8.633,6
Valentziako E.	16,8	6.810,0
Estatuko batez bestekoa	19,9	6860,0

Iturria: Nafarroako Gobernua

91. taula: Pobrezia arriskua

	2004			2005			2006		
	Denak	Gizona	Emakumea	Denak	Gizona	Emakumea	Denak	Gizona	Emakumea
	17,3	16,20	18,40	22,9	21,12	24,40	18,00	17,80	18,30
-16	20,40			29,00			19,00		
16-24	7,10			22,60			21,00		
25-49	14,30			16,00			13,10		
50-64	17,40			18,20			14,20		
65 eta gehiago	27,90			38,30			31,10		

Iturria: Bizi-baldintzei buruzko inkesta. Egileek prestatua

ADINGABEAK

Ondokoak dira Plan Estrategikoaren indarraldirako kalkulatu diren adingabeen kopuruak, kontuan hartuta adingabeen %3 Haurren Babeserako sistemaren esku-hartzearen xede dela.

92. taula: 18 urtetik beherako populazioaren proiektzioa

Urtea	Nafarroako populazio osoa	18 urtetik beherakoak	Igoeraren portzentajea	Esku-hartzearen xede litzatekeen populazioa
2007	605.876	104.560	%1,99	3.300
2008	611.848	106.637	%2,08	3.309
2009	617.448	108.859	%2,17	3.332
2010	622.659	111.217	%2,23	3.355
2011	627.640	113.694	%2,24	3.378
2012	632.515	116.236		3.402

Iturria:

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK

Genero indarkeriari neurria hartzeko erreferentzia gisa 2007an aurkeztutako salaketa kopurua erabili dugu, 989, eta urte horretan eman ziren 383 babes-aginduak, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Nafarroako Foru Komunitateko 2007ko txostenaren datuen arabera.

Aintzat hartzekoa da, halaber, oinarrizko gizar-te zerbitzuak erabili eta "tratu txarren" egoeren berri eman zituzten pertsonen kopurua (arreta falta, tratu txar fisikoak, tratu umiliagarriak eta sexu abusuak). 2007an 490 pertsonak hartu zuten arreta.

IV. ESKAERA ERREALAREN AZTERKETA

Gizarte zerbitzuen hartzaile diren pertsonen eskaera aztertzean ez dira ahanzi behar abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea eta, batez ere, Gizarte zerbitzu orokorren zorroa. Arau horiek, eskubide subjektiboa aitortu ez ezik zehaztu ere egiten dute prestazio bermatuen kasuan -gizarte zerbitzu orokorren zorroan, hain zuzen-, eta ezarri Foru Komunitateko Administrazioak eskubidea emateko duen epea.

Beraz, itxaron zerrendak aztertzean kontuan hartu beharreko aldagaiak hauek dira:

- Zorroaren jarduketa eremua.
- 65 urtetik gorako edo beherako pertsonak.
- Eskatutako zerbitzu mota.
- Balorazioak eginik dauden.
- Prestazio bermatuetarako ezarritako baldintzak betetzen diren.
- Prestazioa emateko epea.
- Prestazioak gehitzeko beharra, eskubideen bermatzea betetzeko.

Ondotik ageri dira Gizarte Gaietako Departamentuak arlo guztietan kudeatzen dituen baliabideetako itxaron zerrendei buruzko datuak: ezgaitasuna, mendekotasuna, buru nahaste larria, gizarte bazterketa, adingabeak eta genero indarkeria.

IV.1. MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONAK.

Gizarte zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legean eta zorroan xedatutakoari jarraikiz zerbitzuak bermatu behar zaizkien eskatzaileei erantzuteko, egungo itxaron zerrendaren eta balizko eskaeraren arabera, plaza publiko hauek beharko lirateke:

- Nafarroako Mendekotasun Agentziak emandako datuen arabera, mendekotasun handiaren eta larriaren balorazioa jaso duten 2.600 pertsonak (arreta jasotzen dutenak barne) beharko lukete egoitzako plaza; gaur egun, ezaugarri horiek betetzen dituzten plazen eskaintza publikoa 883koa da, eta departamentua pixkanaka joanen da pertsona horiei erantzuteko behar diren plazak hitzartzen, kopuru absolututan 1.717.

- Eguneko arretari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren asmoa da %0,75eko estaldura lortzea, hau da, 793 plaza; zerbitzu honetako eskaintza 619 plazakoa da, eta horietatik 91 publikoak dira.

Alde batetik, plaza horiek ituntzen joan beharko lirateke gutxika, Iruña eta Iruñerriko Barrutian dagoen eskaerari erantzuteko, eta bestetik itun horiek zabaldu gizarte zerbitzuen beste esparru batzuetara.

Ondoko datuak espedientea itxaron zerrendan duten pertsonenak dira soilik.

93. taula: Itxaron zerrendan dauden pertsonak, barrutiaren eta plaza motaren arabera

Plaza psikogeriatrikoak	Mendekotasuna dutenen plazak		Egoitzako plazak, guztira	Eguneko zentroa
Iruña eta Iruñerria	174	44	218	21
Ipar-ekialdea	4	0	4	
Ipar-mendebaldea	19	6	25	
Lizarra	14	4	18	
Tafalla	6	0	6	
Tutera	6	1	7	4
GUZTIRA	223	55	278	25

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

94. taula: Itxaron zerrendan dauden pertsonen kopurua, bermatu beharreko arrazoiengatik, gizarte zerbitzuen barrutien arabera

ESKUALDEAK	Mendekotasun graduaren arabera	Arazo sozial larriagatik (4)	GUZTIRA
Iruña eta Iruñerria	153	21	174
Ipar-ekialdea	3	1	4
Ipar-mendebaldea	15	4	19
Lizarra	11	4	14
Tafalla	5	1	6
Tutera	6	0	6
Guztira	193	31	224

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

95. taula: Plaza psikogeriatrikoen kopurua, patologiaren eta arazo sozialen arabera, barrutiz barruti.

ESKUALDEAK	Eritasun degeneratiboa		Buru-eritasuna		Toxikoen kontsumoa		GUZTIRA
	Mend. gradua	Arazo sozialak	Mend. gradua	Arazo sozialak	Mend. gradua	Arazo sozialak	
Iruña eta Iruñerria	28	1	3	11	0	1	44
Ipar-ekialdea	0		1	1		0	2
Ipar-mendebaldea	4		0		0	1	5
Lizarra	1	1	1	1		1	5
Tafalla	0						0
Tutera	1						1
Guztira	34	2	5	13	0	3	57

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Datu hauek gutxi gorabeherakoak badira ere, PIA eta balorazio ekonomikoa egiteko duten kasu guztiak falta baitira, haien azterketatik ateratzen den ondorioa da 150 plaza gehiago beharko liratekeela itxaron zerrendan dauden eta mendekotasun handia edo larria duten pertsonen tokia bermatze-

ko. Eskaera handiena Iruñean eta Iruñerrian dago. Horretarako, egoitzako plazen berrantolaketa egin beharko litzateke, bai eta mendekotasun handia nahiz larria duten pertsonen arreta emateko behar direnak itundu ere.

(4) Itxaron zerrendan arazo sozial larriagatik edo/eta mendekotasun sozialagatik dauden pertsonak ezin dira aintzat hartu azterketa harik eta onartu arte baremo berariazko bat familia gatazka larriak edo familiako sostengu egokiaren falta baloratzeko.

IV.2. EZGAITASUNA

96. taula: Itxaron zerrendan dauden pertsonak, zerbitzu motaren eta gizarte zerbitzuen barrutien arabera

Plaza mota	Iruña	Tutera	Tafalla	Lizarra	Ipar-mendebaldea	Ipar-ekialdea	Guztira
Eguneko A.	3	0	0	0	0	0	3
Egoitza	27	6	1	2	3	1	40
E. Funtzionala	22	4	2	4	3	4	39
Guztira	52	10	3	6	6	5	82

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

82 pertsona horietatik, 41k BVDren balorazioa dute:

97. taula: Itxaron zerrendan dauden pertsonak, mendekotasun mailaren arabera

Plaza mota	Mend. Handia 2	Mend. Handia 1	Mend. Larria 2	Mend. Larria 1	Mend. Mod. 2	Mend. Mod. 1	Mend. ez	Baloratutakoak, guztira
Eguneko A.	1	1	1					3
Egoitza	9	4	5	3	1	7	1	30
E. funtzionala				1	3	0	4	8
Guztira	10	5	6	4	4	7	5	41

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Eguneko Arretan 3 pertsona daude Iruñean. Hiruen mendekotasun graduek eta mailek jaso duten balorazioa bermatu beharrekoena da. Eguneko arreta Foru Komunitatearen esparruko baliabidea da. Eguneko arretarako 76 plaza eskaintzen dira, eta horietatik 9 libre daude, eta beraz mendekotasun handiaren edo larriaren balorazioa jaso duten pertsonen zerbitzu hau bermatzeko ez litzaiteke beharrezkoa izan plaza kopurua handitzea.

Egoitzako arretan 40 pertsona daude itxaron zerrendan, eta horietatik 21 bermatu beharrekoak dira, hau da, mendekotasun handiaren eta larriaren balorazioa jaso dutenak. Eskaera horri erabateko erantzuna emanen zaio ezgaitasuna dutenen arreta integralerako zentro berriarekin, Sarrigurengo "Las Hayas" zentroarekin alegia.

Etxebizitza Funtzionalerako itxaron zerrendari dagokionez, berriz, bertan dauden 39 pertsoneta-

tik 18k %55eko elbarritasuna edo handiagoa dute. Kasu horietan sei hilabeteko epean bermatu beharko litzaieke baliabide hau gizarte zerbitzuen zorroa onartzen denetik hasita. Foru Komunitatearen esparruko baliabidea denez, etxebizitza bat edo bi abian jarri beharko lirateke, bakoitzeko plaza kopuruaren arabera. Kontuan hartu behar da, gainera, ezgaitasun fisikoa duten pertsonen ere eska dezaketela etxebizitza mota hau, baliabide honetarako baldintza egokiak betetzen dituztenak badirelako, ofizialki horren berri ez badugu ere.

Zentro okupazionalen kasuan 10 pertsona daude itxaron zerrendan, eta erantzuna eman ahal zaie zentro horiek kudeatzen dituzten entitateekiko lankidetzaren hitzarmenetan plaza kopurua handituz, baina zerbitzua ez da bermatua gizarte zerbitzu orokorren zorroaren arabera.

ADIMENeko EZGAITASUNA ETA JOKABIDE-
AREN NAHASTEa

98. taula: Adimeneko ezgaitasuna eta jokabidearen nahastea dutenen itxaron zerrendan pertsona hauek daude, zerbitzu motaren arabera

Plaza mota	Iruña	Tutera	Tafalla	Lizarra	Ipar- mendebaldea	Ipar- ekialdea	Guztira
Egoitza	6	4	1	1	1	0	13
Guztira	6	4	1	1	1	0	13

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

13 pertsona horietatik, hauek dute BVDren balorazioa. 3.

99. taula: Itxaron zerrendan dauden pertsonak, mendekotasuna baloratuak dutenak

Plaza mota	Mend. Handia 2	Mend. Handia 1	Mend. Larria 2	Mend. Larria 1	Mend. Larria 2	Mend. Mod. 1	Mend. ez	Baloratuak, guztira
Egoitza	0	0	1	1	0	1	0	3
Guztira			1	1		1		3

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Foru Komunitatearen esparruko zerbitzua denez, eskaerari erantzuna emanen litzaioke ezaugarri horiek dituen modulu batekin: 15 plaza-koa da eta Tutera La Atalaya zentroan inauguratu da.

IV.3. BURU-NAHASTE LARRIA

• Tutoretzapeko etxebizitzetako plazetarako itxaron zerrendan dauden pertsonak: 48.

48 pertsonetatik 39k duten elbarritasuna %55ekoa edo handiagoa da, eta 39 horietatik batek baizik ez du elbarritasun gradu hori. Gainerakoek %65etik gorakoa dute. Ezaugarri horietarako zerbitzu egokia, gizarte zerbitzuen zorroaren arabera, etxe-egoitza bat izanen litzateke, beraz,

kontuan harturik 2011rako bi etxe-egoitza eraikiko direla Iruña eta Iruñerriko Barrutian, zerbitzuaz baliatzea gizarte zerbitzuen zorroan aipatzen diren epeetan bermatuko litzateke pertsona horiei.

• BELEko (Buru-eritasunerako laguntzarekiko egoitza) plazetarako itxaron zerrendan dauden pertsonak: 81 pertsona.

• Mendekotasunaren balorazioa egina duten pertsonak: 23.

100. taula: Mendekotasunaren balorazioa jaso dutenak

Mendekotasun graduak	Pertsona kopurua
Mendekotasunik ez dutenak	11
Mendekotasun moderatua 1. maila	8
Mendekotasun moderatua 2. maila	2
Mendekotasun larria 1. maila	1
Mendekotasun larria 2. maila	1
Mendekotasun handia, 1. maila:	0
Mendekotasun handia, 2. maila	0
Guztira	23

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Itxaron zerrendan 81 pertsona daude, eta horietatik 23k baizik ez dute mendekotasunaren balorazioa, zeinetatik bi babesaren xedea izanen liratekeen plan estrategiko hau ezartzean. proportzio hori itxaron zerrendan dauden eta baloraziorik ez duten gainerakoekin aplikatuz gero, kalkulua 10

plazakoa izanen litzateke, hau da, buru-nahaste larria eta mendekotasuna duten pertsonentzako babesa bermatzeko behar direnak.

Zentro okupazionalerako itxaron zerrendan dauden pertsonen kopurua. Iruña eta Iruñerriko barrutian dago itxaron zerrenda, 21 pertsonarekin.

101. taula: Zentro okupazionalerako itxaron zerrendan dauden pertsonak, gizarte zerbitzuen barrutien arabera

Gizarte zerbitzuen barrutiak	Iruña eta Iruñerria
Itxaron zerrendan dauden pertsonak	21
Guztira	21

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

IV.4. GIZARTE BAZTERKETA

Bizi baldintzei buruzko inkestak emandako datuen arabera, pobrezia arriskuan dauden pertsonen portzentajea %18koa da, eta beraz arlo sozialeko politikaren lehentasunezko jarduketetako bat gizarteratzeko neurri aktiboak sustatzea izan beharko da; horietako bat izanen da, garrantzitsuenetakoa, pertsona batentzako oinarrizko errenta hiru urtez parekatzea lansarien arteko gutxieneko soldatarekin, akonpainamendu sozialaren sustapenarekin batera, ingurune irekian esku hartzeko taldeen bitartez, bai gizarteratze eta laneratzean (GLT) bai etxebizitzaren bidezko gizarteratzean (EG).

IV.5. ADINGABEAK

Behaketa eta harrera zentroa

Familia, Haur eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, une honetan 7 per-

tsona daude itxaron zerrendan, eta COAn 12 urtetik beherakoentzat baimentzen duen plaza kopurua baino 5 pertsona gehiago; kontuan hartzen badugu prestazio hau emateko gizarte zerbitzuen zorroan ezarritako epea berehalakoa dela, 5 plaza gehitu beharko lirateke eskubidea bermatzeko.

12 urtetik gorakoentzako COAri dagokionez, 9 pertsona daude itxaron zerrendan eta baimendutako plaza kopurua baino 7 gehiago; beraz, lehen aipatutako irizpideekin bat, zortzi plaza gehitu beharko lirateke.

Familiako esku-hartze zerbitzua.

Programa honetan 12 familia daude itxaron zerrendan, beraz zuzeneko esku-hartzeko profesionalen kopurua handitu beharko litzateke.

Egoitzako harrera zerbitzua

Iturri horren beraren arabera eta kontuan hartuta 12 pertsona daudela itxaron zerrendan, 11 plaza berri sortu beharko lirateke zerbitzu honetarako.

IV.6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK.

102. taula: Genero indarkeriaren biktimentzako arretaren baliabideetako batez besteko erabilera

Baliabideak	Erabilera datuen portzentajea
Larrialdietarako zentroa	%47,7
Abegi Etxea	%69,70
Harrera etxebizitza	%75,0

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetzaren Zerbitzua.

Genero indarkeriaren biktimentzako egoitzabaliabideen erabilera aztertuta, ondorioa da egungo plaza eskaintzarekin balizko eskaerari eta eskaera errealari aurre egiten zaiola. Halere, aur-

keztutako salaketak eta oinarrizko gizarte zerbitzuetan jasotako eskaerak ikusita, beharrezkoa da genero indarkeriaren biktimei arreta emateko talde integralak sortzea.

V. DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA

V.1. INDARRAK/AUKERAK, MEHATXU- AK/AHULEZIAK

AMIA DIAGNOSTIKOA

Balorazio diagnostikorako metodologia hau erabiliz, Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren indarrak eta ahultasunak barnetik aztertu dira eta aukerak eta mehatxuak, berriz, kanpotik.

Ekitaldiko helburua izan da Nafarroako gizarte zerbitzuen egungo egoeraren diagnostikoa egitea, estrategia errealistak diseinatzeko eta helburuak ezartzeko, batetik indarrak eta aukerak sendotu eta, bestetik, ahultasun eta mehatxuei aurre egiteko.

Plangintza eta Azpiegitura Zerbitzuak galdetegi bat prestatu zuen gizarte zerbitzuen sistemari buruz jendeak duen iritziaren berri izateko; galdera horiek batzorde tekniko eta zuzendaritza batzordeko kideei helarazi zitzaizkien, bai eta departamen-

tuko teknikariei ere, bete eta talde eragileari bidaltzeko. Talde honek 20 galdetegi jaso zituen, 1.000 ideia-irritzi ingururekin.

Idea-irritziak aztertu, antolatu eta sailkatu ziren agiri berri batean, eta hura aurreko fasean parte hartu zutenei bidali zitzaien; partaide horiek, zeinek bere aldetik, indar, ahultasun, aukera eta mehatxu nabarmenenak identifikatu eta lehentasunaren arabera ordenatu zituzten.

Bigarren fase honen azterketa egin ondoren, departamentuak balorazio altuena jasotako 3 indar, ahultasun, aukera eta mehatxuak identifikatu zituen, bai eta bilatu ere indarrek aukerekin eta mehatxuekin zuten korrelazioa, eta ahultasunek aukerekin eta mehatxuekin. Lortutako emaitzak bide emanen digu estrategia errealistak diseinatu eta helburuak ezartzeko, zeinak, batetik, kanpoko aukerez baliatuko baitira barneko indarren bidez eta, bestetik, ahultasunak gaindituko, aukerez profitatzeko eta mehatxuei aurre egiteko.

INDARRAK	AUKERAK
F1. Gizarte zerbitzuei buruzko legeak gizarte zerbitzuei buruzko kontzepzio berria ekarri du, eta gizarte ongizatearen Estatuaren laugarren zutabe gisa finkatzen ditu, osasunarekin, hezkuntzarekin eta pentsioekin batera.	O1. Honakoak hobetzeko bide ematen duten tresnak izatea: kudeaketa ekonomikoa, eskura dagoen informazioa, ezagutza, irudi korporatiboa, emaitzen neurketa, hartzaileen asetze-maila...
F2: Gizarte zerbitzuen sistemak baliabide eta itun sare dibertsifikatua du (irabazi asmorik gabeko entitateak, kudeaketa entitateak, enpresak, sareko lanaren esperientziak...), herritarrengandik eta esku hartzen duen ehun sozialetik hurbil dagoena.	O2. Gizarte zerbitzuen esku-hartzean profesionalizazio eta espezializazio handiagoa lortzera bideratutako joera sozial finkatua.
F3. Bitarteko gizarte zerbitzuak ezartzearen aldeko apustua oinarritzeko arreta osatzeko: Gizarte zerbitzuetako zentroak.	O3. Adostasun soziala herritarren eta erakundeen partaidetza erraztu behararen inguruan, gizarte zerbitzuetatik erantzuten diren beharrei soluzioak bilatzen.
AHULTASUNAK	MEHATXUAK
D1. Ez dago plangintza estrategikorik. Egindako plangintza sektorekoa izan da eta batzuetan epe laburreko erantzunak eman beharrak baldintzatua; zenbaitetan asmoen adierazpena baizik ez da izan.	A1. Babes sozialeko sistemen arteko koordinaziorako eta eskumen banaketarako arazoak.
D2. Koordinazio falta eta bikoizteak sistemaren mailen artean (planifikazioa/kudeaketa, oinarritzeko arreta eta espezializatua...) eta beste departamentu batzuekin (Osasuna, Etxebizitza, Hezkuntza, Enplegua...).	A2. Aldaketa azkarrak errealitate sozialean, behar sozial berriak dakartzatenak.
D3. Ez dago irizpide bateraturik gizarte zerbitzuetako kalitateari buruz. Kalitate planik ez dago.	A3 Lurrealde sakabanatua eta zatitua, eskualdeen arabera bereizitako populazio taldeekin.

VI. NAFARROAKO GIZARTE ZERBITZUEN PLAN ESTRATEGIKOA 2008-2012

VI.1. IKUSPEGIA, EGINKIZUNA, PRINTZIOPIOK ETAK HELBURUAK

IKUSPEGIA:

• Gizarte zerbitzuen sistemaren egitura halako moldekoa izanen da non ekitate irizpideekin arreta eman ahal izanen baitaie administrazio publikoetatik arreta soziala jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiei.

EGINKIZUNA:

• Gizarte zerbitzuen sare unibertsal, bermatzailer eta kalitatekoa garatzea lurralde osoan modu harmonikoan, pertsonen oinarritzko beharrei, eta lehenetasunez ahulenei, erantzuteko.

PRINTZIOPIOK:

A) Gizarte zerbitzuen sistema publikoak, epe horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 5. artikuluan jasotako printzipioen arabera funtzionatu beharko du. Hauek dira printzipio horiek:

- Unibertsaltasuna.
- Erantzukizun publikoa.
- berdintasuna.
- Elkartasuna.
- Hurbiltasuna eta dezentralizazioa
- Herritarren partaidetza.
- Arreta pertsonalizatua eta integrala.
- Normalizazioa.
- Prebentzioa.
- Autonomia pertsonala sustatzea.
- Administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzeta.
- Kalitatea.
- Boluntario lanaren sustapena.

B) Horiez gain, plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak printzipio hauetara bideratuta bete beharko dira:

• Pertsonengana bideratua: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak pertsonengan eta haien bizi kalitatean oinarritutako plangintzara bideratuta beteko dira.

• Lehenetasunez pertsona ahulenei arreta ematea: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak betetzean lehenetasuna emanen zaie, haien artetik, pertsona ahulenei arreta emateko xedea dutenei.

• Genero berdintasuna: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu eta bermatzera bideratuta beteko dira.

• Hautatzeko askatasuna: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak betetzean erabiltzaileek jaso ditzaketan prestazioen artean hautatzeko askatasunaren errespetua sustatuko da.

• Zerbitzua emateko lehenetasuna: plan honetan aurreikusitako neurri eta jarduketan artean, lehenetasuna emanen zaio behar adinako baliabide eta zerbitzu sarea garatzera eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredia sendotzera bideratuta daudenak betetzeari.

• Etxean edo/eta ingurunean gelditzeko laguntza: norbere etxean eta/edo ingurunean gelditzeko aukera errazteko neurriak eta ekintzak bultzatuko dira, familiarengandik eta gizartetik deserrotzea saihesteko; horretarako garrantzi berezia emanen zaie prebentzioari eta autonomia pertsonalaren sustapenari.

• Zerbitzuarekin lotutako prestazioaren salbuespeneko izaera: plan honetan aurreikusitako neurriak eta ekintzak betetzean bermatu beharko da ordezkotako prestazio ekonomikoak, zerbitzurik ez dagoenean ematen direnak, salbuespenekoak direla.

• Enpleguaren kalitatea: Plan honetan aurreikusitako neurriak eta ekintzak gizarte zerbitzuen profesionalen enpleguaren kalitatea hobetzeko helburuarekin beteko dira.

• Eskaera berdintasuna eta kontrol etengabea: Plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak beti araudi berari eta kalitate estandar bereberri jarraikiz beteko direla bermatuko da, zein den ere zerbitzua ematen duena.

HELBURU OROKORRAK:

AMIA azterketaren ikuspegia, eginkizuna eta analisisa kontuan harturik, Plan Estrategiko honekin abian jarriko den gizarte zerbitzuen sistema publiko berriak helburu hauek bete behar ditu:

1. Nafarroako herritarrek jakinen dute zer diren gizarte zerbitzuak eta nola funtzionatzen duen sistemak.

2. Nafarroako herritarrek, edozein dela ere bizi diren udalerria, berdintasunez jaso ahal izanen dituzte gutxieneko prestazio homogeenotat batzuk, pertsona ahulenen kasuan eskubide izanen direnak.

3. Pertsonak libreki hautatu ahal izanen dute nolako arreta nahi duten, eta gizarte zerbitzuen

sistema publikoak behar adinako zerbitzu sarea izanen du, horretarako.

4. Pertsonak bere ingurunean gelditu eta erabateko integrazioa lortu ahal izanen dute.

5. Gizarte Zerbitzuen sistema publikoak zerbitzuen kalitatea bermatu eta etengabeko hobekuntza bultzatuko du.

6. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoak sektoreko profesionalen enpleguaren kalitatea hobetuko du, profesionalizatuago eta espezializatuago egon daitezten.

7. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa eraginkorragoa, ekitatiboagoa, malguagoa eta eragimen handiagokoa izanen da pertsonen beharrei erantzuteko garaian.

8. Gizarte Zerbitzuen sistema publikoak babes sozialeko beste sistemekiko koordinazioa hobetuko du.

ILDO ESTRATEGIKOAK:

Ildo estrategikoak Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoan ezarritako helburuak lortzeko bideak dira.

Horiek zehazteko, abiapuntuak izan dira AMIA Diagnostikoa, Nafarroako Gobernuak onetsitako "Gobernu ekintza. Herritarrekiko konpromisoa," Nafarroa Plana 2012 eta ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako gizarte zerbitzu orokorren zorroaren edukia, bai eta plan hau egiteko erabili den partaidetza prozesuaren emaitza ere.

Hauek dira ildo estrategikoak:

1. ildo estrategikoa. Arau garapena.

2. ildo estrategikoa. Lehentasunezko arreta beharrak.

3. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen banaketa lurraldean eta eskualdeak.

4. ildo estrategikoa. Plangintza, kontrola eta ikuskapena.

5. ildo estrategikoa. Antolaketa eta kudeaketa.

6. ildo estrategikoa. Prestakuntza eta ikerketa.

7. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen kalitatea.

Haietako bakoitza, berriz, neurri eta jarduketa hauetan gauzatzen da:

1. ildo estrategikoa: Arau garapena

Neurria. 1.1. Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea garatzea

Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, aurrekoa, 1983koa, ordezkatu duenak, gizarte zerbitzuen sistema publikoa garatzeko esparru orokorra ezarri du.

Haren aplikazio zehatzerako maila apalagoko kasuan kasuko arauen bidezko garapena behar da. Garapen horri pixkanaka eta modu antolatuan heldu behar zaio, herritarren eskubideak bermatzeari eta emandako arretaren kalitateari begira eragin handiena izan dezaketen araei lehentasuna emanaz. Horrela, Plan Estrategiko honen indarraldian honako alderdi hauei buruzko erregelamenduak onetsiko dira, **jarduketa hauekin:**

JARDUKETAK	1.1.1. Jarduketa. Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetako programetako prestazioen garapena eta finantzaketa. Garapenerako, etxeko arreta zerbitzua sustatuko da baliabide estrategiko gisa, udal autonomia errespetatuz; horretarako, zerbitzurako eredu egokiena zein den aztertuko da, erabiltzaileen beharretara moldatzeko.
	1.1.2. Jarduketa Oinarrizko gizarte zerbitzu, zerbitzu espezializatu eta gizarte zerbitzuetako zentroetako profesional anitzeko taldeen osaketa eta eginkizunak garatzea.
	1.1.3. jarduketa. Erreferentziako profesionala garatzea eta, zehazki, sistemak hura atxikitzeko modua eta erabiltzaileek hura hautatzeko modua.
	1.1.4. Jarduketa. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa eta ordainketan parte hartzeko modua zehazteko irizpideak garatzea. Garapen horrek ziurtatuko du bi baremo baizik ez direla egonen talde bakoitzaren ahalmen ekonomikoa neurtzeko, prestazio motaren arabera, dela egoitzako zerbitzua, dela eguneko arreta.
	1.1.5. Jarduketa Honakoak garatzea: betebeharrak, kalitateko gutxieneko estandarrak, enpleguaren kalitatea eta baimen administratiboak, baimen berariazkoak eta homologazio administratiboak lortzeko prozedura.
	1.1.6. Jarduketa. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa eta Baimen Berariazkoen Erregistroa garatzea.
	1.1.7. Jarduketa. Etika Batzordea eta Etika Batzorde sektorialak edo zentrokoak garatzea, eta haien osaketa, eginkizunak eta jarduteko esparruak ezartzea.
	1.1.8. Jarduketa. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen immobilizaziorako kasuak garatzea eta hala egiteko prozedurak.
	1.1.9. Jarduketa. Egoitzako arretarako eta eguneko arretarako zentroetako partaidetza kontseiluak garatzea, eta haien osaketa eta eginkizunak ezartzea.
	1.1.10. Jarduketa. Mendekotasun egoera baloratu eta aitortzeko eta mendekotasuna duten pertsonen arreta emateko banakako programa prestatzeko prozedura garatzea.

1.2. Neurria. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren esparruko beste arau batzuk garatzea.

Gizarte Zerbitzuen sistema publikoari eragiten dioten heinean, honako foru lege hauek garatzeko erregelamenduak ere onetsiko dira:

JARDUKETAK	1.2.1. Jarduketa. Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa, erregelamenduz garatzea eta, berariaz, Haur eta Nerabeen arretarako kontseiluak eta Nafarroako Adopzioen Erregistroa.
	1.2.2. jarduketa. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea erregelamenduz garatzea.

1.3. Neurria. Gizarte zerbitzu orokorren zorroko prestazioak garatzea.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroa pertsonak gizarte zerbitzuez baliatzeko duten eskubidea zehazten duen araua da eta, beraz, gizarte zerbitzuen sistemaren aldaketarako erreferentziako tresna, laguntzan oinarritutako sistema izatetik eskubide zehatz aitortuak bermatzen dituen sistema izatera pasatu dela islatzen duena.

Hortaz, zorro horretan sartuta daude Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizunekoak diren prestazio guztiak, bai eta, toki entitateen erantzukizunekoak diren arren, Foru Komunitateko lurralde osoan gutxienez bermatu behar direnak; prestazio bermatuak eta bermatu gabekoak bereizten dira, hau da, zorroak definitzen duten moduan, eskubide subjektibo gisa eskatu beharrekoak eta aurrekontuan dirua dagoenean eskatu ahalko direnak.

Zorroak bertan sartutako prestazio guztien alderdi hauek ezartzen ditu: xedea, izaera -bermatua edo bermatu gabekoa-, onuradunak, haietako bakoitzaz baliatzeko bete beharreko baldintza berariazkoak, zerbitzua edo arreta noiz eta nola eman, hartzaileei ordainketan parte hartzea eskatzeko aukera, bidezkoa denean, eta jarduketa esparrua. Horrez gain, prestazio bermatuen kasuan, administrazio eskudunak zerbitzua emateko epea ezartzen da –epe horretatik aurrera eskubideaz auzitegietan galde egin daiteke, Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen 19.3 artikuluari jarraikiz-.

Aurrekoa gorabehera, zenbait prestaziok garapena beharko dute aurrerago, modu egokian aplikatzeko, aipatutako alderdi guztiak osotara zehaztu daitezten. Oinarrizko Arretako prestazioen kasuan, garapen hori Oinarrizko Arretako lau programak arautzen dituen foru dekretuaren bidez gauzatu da eta, gainerako prestazioen kasuan, arau garapen hauek egiten dira:

JARDUKETAK	1.3.1. Jarduketa. Ezgaitasuna baloratzeko prozedura arautzen duen foru agindu bat onestea.
	1.3.2. Jarduketa. Larrialdietako Telefono Zerbitzua arautzen duen foru agindu bat onestea.
	1.3.3. Jarduketa. Egoitzetako aldi baterako egonaldiak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.4. Jarduketa. Egoitzetan sartzeko, familia-gatazka larria edo familia-sostengu egokirik eza baloratzeko baremoa arautzen duen foru agindu bat onestea.
	1.3.5. Jarduketa. Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua indargabetzea eta oinarrizko errenta arautzen duen foru agindu bat onestea.
	1.3.6. Jarduketa. Larrialdi sozialetarako laguntza bereziak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.7. Jarduketa. Familian eta gizartean integratzeko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.8. Jarduketa. Genero indarkeriaren biktimetzako larrialdiko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.9. Jarduketa. Genero indarkeriaren biktimei, baliabide falta eta zailtasun bereziak dituztela frogatzen badute, ematen zaizkien laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.10. Jarduketa. Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.11. Jarduketa. Mendekotasuna duten pertsonak laguntzaile pertsonala izateko diru-laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.12. Jarduketa. Mendekotasuna duten pertsonak etxeko arreta jasotzeko gutxienezko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea.
	1.3.13. Jarduketa. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eta haren salbuespen izaera arautzen dituen foru agindu bat onestea.

1.4 Neurria. Arauen hedapena eta zabalkunde egitea.

Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak erraztu eta sustatu beharko du profesio-

nalek, gizarte eragileek, ekimen pribatuko entitateek eta herritarrek oro har gizarte zerbitzuen sistema publikoaren funtzionamendua arautzen duten arauen eta haren jarduketan berri izatea. Horretarako, ondoko jarduketa hau egin beharko du:

JARDUKETAK	1.4.1. Jarduketa. Komunikazio Plan Integral bat diseinatu eta abian jartzea, araudia jasoko duen argitalpena, departamentuaren web orrialdearen diseinu berria eta hedapen eta informaziorako beste ekintza batzuk barne hartuko dituena.
-------------------	--

2. ildo estrategikoa: Lehentasunezko arreta beharrak.

Erantzun beharreko premietan lehentasunak jartzeko, lehenengo eta behin bermatu beharra dago geroz eta ahalegin handiagoa eta proportziozkoa eginen dela gizarte zerbitzuen arloan esku hartzeak dituen lau eremuetan hartzaile diren talde guztientzat (mendekotasuna duten edo izateko arriskuan diren pertsonentzako arreta -adineko pertsonak, ezgaitasuna duten pertsonak eta, berariaz, buru-eritasuna dutenak hartzen ditu bere baitan-, gizartean bazterturik edo hala gertatzeko

arriskuan dauden pertsonentzako arreta, babesgabeziako edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako arreta eta genero indarkeriaren biktimentzako arreta). Lehentasunak ezarri behar dira, halaber, talde horietako bakoitzarentzat, plan honetan adierazitako printzipioak eta, berariaz, gizarte zerbitzu orokorren zorroak ezarritako betebeharrak kontuan hartuta.

2.1 Neurria. Lehentasunezko beharrak talde hauentzako arretaren arloan: mendekotasuna duten pertsonak, adinekoak, ezgaitasuna duten pertsonak eta buru-eritasuna dutenak.

JARDUKETAK	<p>2.1.1 Jarduketa. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu guztiek autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun egoera larriagotzeari aurrea hartzeko programak eduki beharko dituzte, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko dituzte Mendekotasunaren Prebentziorako Programaren barruan.</p>
	<p>2.1.2. Jarduketa. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredia sustatzea azpiegitura hauek eraikiz:</p>
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ “Las Hayas”, Adimeneko Ezgaitasuna dutenen Arreta Integralerako Zentroa, Sarrigurenen.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendekotasuna duten Pertsonen Arretarako Funtzio anitzeko Zentroa, Iruñerrian.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egoitza-etxea eta EPZ, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Iruñean.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egoitza-etxea eta Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroa, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Sarrigurenen.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egoitza-etxea eta Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroa, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Tuteran.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Buru-nahaste larria duten pertsonentzako egoitzarako eta arretarako eraikina, Lizarran.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zentro okupazionala, errehabilitazio sozialeko plazekin, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Tafallan.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Oncineda, Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitza handitzea, Lizarran.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baliabide eta Laguntza Teknikoen Zentroa Iruñean.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Monjardin, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro berria, Iruñean.
	<p>2.1.3. Jarduketa. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredia sustatzea, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko arretarako zentroak eraiki daitezen bultzatuz, barruti bakoitzean %0,75eko estaldura eta Iruña eta Iruñerriko barrutian %0,80koa lortzeko, eta ezgaitasuna eta buru-eritasuna duten pertsonentzako lojamendu alternatiboko zentroak sustatuz, gizarte zerbitzu orokorren zorroko zerbitzu bermatuen eskaerari erantzuteko.</p>
<p>2.1.4. Jarduketa. Egoitzetako plaza itunduen kopurua handitzea mendekotasun handia eta larria duten adineko pertsonentzat, eskaera osoari erantzuteko behar adina.</p>	
<p>2.1.5. Jarduketa. Laguntzako neurriak ezartzea (informazioa, prestakuntza eta aholkularitza) mendekotasuna duten pertsonen familia zaintzaileentzat, bereziki emakumeentzat, Mendekotasunaren Prebentziorako Programan horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz.</p>	
<p>2.1.6. jarduketa. Buru-nahaste Larria duten pertsonen Arretarako Programan abian jarritako zerbitzuen azterketa eta ebaluazioa egitea, eta aldatu beharrezkoak berrantolatzea, Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Plan Integralaren barruan.</p>	
<p>2.1.7. Jarduketa. Ezgaitasuna eta buru-eritasuna duten pertsonentzako zentro okupazionalaren zerbitzua ezartzea prestazio bermatu gisa, Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Plan Integralaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da.</p>	

2.2 Neurria. Gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonentzako arretaren arloan dauden lehentasunezko beharrak.

JARDUKETAK	2.2.1. Jarduketa. Etxerik gabekoei lojamendu alternatiboa emateko zerbitzuak sustatzea, pasadizokoentzako aterpeak eraiki edo berritzea lagunduz, Iruñean eta Altsasun.
	2.2.2. Jarduketa. Gizartean bazterturik dauden pertsonentzako zentro okupazionalaren zerbitzua ezartzea prestazio bermatu gisa, Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa egingen da.
	2.2.3. Jarduketa. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko neurriak hobetu, eta oinarrizko errenta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea, horretarako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa egingen da.
	2.2.4. Jarduketa. Gizarteratzeko Etxebizitzaren Programaren aldaketa, horretarako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa egingen da.
	2.1.5. Jarduketa. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu guztiek autonomia pertsonala sustatu eta bazterketa soziala larriagotzeari aurrea hartzeko programak eduki beharko dituzte, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko dituzte Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan.
	2.2.6. Jarduketa. Bazterketa sozialaren kontrako politika guztien xedea izanen da pertsona horiek baliabide orokorrez baliabideak daitezela sustatzea, eta ez talde bakoitzerako baliabide berariazkoak; horretarako, behar diren neurriak ezarriko dira Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planean.
	2.2.7. Jarduketa. Bazterketa sozialaren kontrako politika guztiekin bultzatuko den arreta sozialeko ereduak akonpainamendu sozialean eta banakako ibilbideak egitean oinarriturik egonen da gehienbat.

2.3. Neurria. Babesgabeziako edo gatazka sozialeko egoeran edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeentzako arretaren arloko lehentasunezko beharrak.

JARDUKETAK	2.3.1. Jarduketa. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea honako azpiegitura hauek eraikiz: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Adingabeak zentro batean sartzea dakarten neurri judizialak betetzeko zentroak Aranguren. ▪ Adingabeak egoitzetan hartzeko zentroak handitzea, Iruñean edo Iruñerrian.
	2.3.2. Jarduketa. Plaza itunduen kopurua handitzea egoitzako arreta emateko zentroetan eta behaketa eta harrerakoetan, dauden behar guztiak asetzeko.
	2.3.3. Jarduketa. Atzeman eta esku-hartzeko ekintzak bultzatzea adingabeen ingurune komunitarioan. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haurren babesgabeziaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalen, hezkuntza eta osasun langileei eta familiei.
	2.3.4. Jarduketa. Sentsibilizazio kanpainak egitea familietan hartzea sustatzeko, adingabea etxean eta/edo ingurunean gelditu dadin, ahal dela, zentro batean sartu gabe.
	2.3.5. Jarduketa. Profesionalen kopurua handitzea familiako esku-hartze zerbitzuan eta neurri judizialak ingurune irekian betearazteko zerbitzuan.

2.4. Neurria. Genero indarkeriaren biktimeentzako arretaren arloko lehentasunezko beharrak

JARDUKETAK	2.4.1. Jarduketa. Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko talde bat sortzea.
-------------------	--

3. ildo estrategikoa: Gizarte zerbitzuen lurralde banaketa eta eremuak.

3.1. Neurria. Zerbitzuen eremuak eta lurralde erreferentziak erregelamenduz garatzea.

JARDUKETAK	<p>3.1.1. Jarduketa. Eremuen erregelamenduzko banaketa</p> <p>Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, 41. eta 42. artikuluetan, adierazten du oinarrizko eskualdeen, gizarte zerbitzuen barrutien eta jarduketa bereziko oinarrizko eskualdeen lurralde mugaketa erregelamenduz onetsiko dela. Erregelamenduzko zehaztapen horretarako, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan aurreikusitakoa izanen da abiapuntua, foru lege horren 29. artikuluan xedatu bezala. Hori dela eta, I. Plan honen eranskinean jaso dira gizarte zerbitzuen etorkizuneko eskualdeak, irizpide hauetan oinarriturik egindakoa:</p> <p>a) Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Eskualdeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen esparrua, bat datoz funtsean osasun eskualdeekin.</p> <p>b) Oinarrizko eskualdeen eta barrutien mugaketa geografikorako, irizpide hauek ere hartuko dira kontuan: populazioa, homogeneitate demografikoa eta arrisku sozialaren adierazleak, hala nola, adinekoen kopurua, adin handikoena, mendekotasuna, ezgaitasuna, etxe kopurua, bakarrik bizi diren pertsonen kopurua, adingabeen proportzioa, lan merkatutik kanpo dauden elbarriak, etxean arreta jasotzen dutenak, egoitzetan daudenak eta eguneko zentroetara joaten direnak, atzerritarrak eta oinarrizko errenten kopurua.</p> <p>c) Gizarte zerbitzuen barrutiek, gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen elkarketa diren aldetik, gizarte zerbitzuen zentro bana izanen dute.</p> <p>Sakabanaketa geografikoaren eta eskuragarritasunaren irizpideak oinarritzat hartuta, Lizarrako eta Ipar-mendebaldeko barrutiek tarteko banaketa ere izanen dute, azpibarrutiarena alegia.</p>
JARDUKETAK	<p>3.1.2. Jarduketa. Zerbitzuen lurralde-erreferentziak.</p> <p>Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuen banaketa egitean, ahalik eta gehien bermatu beharko dira deszentralizazioa eta pertsonen sistema eskura izatea. Horretarako, haietako bakoitza eskatzea gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitako jarduketa esparruaren araberakoa izanik ere, zerbitzuen erreferentziak hauek izanen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Oinarrizko eskualdearen edo jarduketa bereziko eskualdearen mailan: <ul style="list-style-type: none"> ➤ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lau programak. Halere, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen 31.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lau programak garatzeko foru dekretuan horiek pixkanaka ezartzeko modua zehaztuko da, eta, ezartzerik ez dagoenean, zein kasutan bermatu beharko den zerbitzua barrutietan ematea eta berme horretarako prozedura. ▪ Barrutietan: <ul style="list-style-type: none"> ➤ Adinekoei egoitzako arreta emateko zerbitzuak. ➤ Gizarte zerbitzuetako zentroetako taldeak. ➤ Adinekoei eguneroko arreta emateko zerbitzuak. ➤ Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako zentro okupazionalako zerbitzuak. ➤ Arreta Goiztiarreko zerbitzuak. ➤ Buru-nahaste larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zerbitzuak Iruñean eta Iruñerrian, Tuteran, Lizarran eta Ipar-mendebaldean. ➤ Ipar-ekialdean, kontuan hartuta barrutiaren ezaugarri bereziak, etxeko arreta sustatuko da oinarrizko gizarte zerbitzuetako lau programak garatzen dituen foru dekretuan. ▪ Azpibarrutietan: <ul style="list-style-type: none"> ➤ Adinekoei egoitzako arreta emateko zerbitzuak. ➤ Adinekoei eguneroko arreta emateko zerbitzuak. ▪ Nafarroako Foru Komunitatean: gainerako zerbitzuak.

3.2. neurria Gizarte zerbitzuetako zentroak sortzea.

